



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

104 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoan adjudikatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, tributuei buruzko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzearen ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Iruztun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Lizarrako saihesbidearen azalera okupatu eta desjabetzeko tramitei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Tuteran erdi mailako zikloak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Azkoiengo osasun barrutiko gaueko osasun laguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, toki azpiegituren hiru urteko planeko obren diru-kopurua handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate Departamentuak epaimahaiak osatzeko teknikariak izendatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, epaimahaiak osatzeko pertsona-eskaera espresuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Cintruénigon igerileku girotu bat egiteko lanei lehentasuna emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Kasedan zahar-etxe bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Tafallako belodromoa estaltzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Canal de Navarra, S.A. sozietatearen administrazio kontseiluko kideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Canal de Navarra, S.A. sozietateko kudeatzailearen izendapen proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Canal de Navarra, S.A. sozietatearen finantza planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Canal de Navarra, S.A. sozietatearen kapitalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako ubideko obrak egiteko sinatu zen hitzarmenaren aldaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Lizarrako egungo epaitegiak hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Parlamentuak 2000n onetsitako hainbat erabaki betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Kasedako Udalak onetsitako hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, udal batasunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, genetikoki aldarazitako organismoekin NUPen egiten ari diren esperimendu eta ikerketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, NUP ikertzen ari den pikillo piperraren patenteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, abeltzaintza-ustiategiei buruzko araudiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, telefono-antena ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Toki Itunaren prestaketa-lanen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, langile minusbaliatuak kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, aurrekontuko azken hiru ekitaldietako superabitari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Nafarroan zein Estatuan KPIk izandako desbideraketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, elikagaien eta etxebizitzaren sektoreetako prezioen moderazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, inflazioa gutxitzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, PFEZko atxikipenei eta horrek inflazioan duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, Cintruénigoko DBH ikastetxea handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, zenbait enpresa publikoko langile ezgaituen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, Cascanteko ikastetxe publikoan laguntzako irakasleak eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).

F saila:
GALDERAK

Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoan adjudikatu izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoan adjudikatu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoan adjudikatu izanari buruz. Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariak bere erantzunari kontratazio-espeditaeren kopia –zeinak baldintzen plegua, lehiaketara aurkezturiko enpresen zerrenda eta adjudikazioaren ebazpena agertzen baititu– erantsi dio. Hona kontseilariaren erantzuna:

Adjudikazio-hartzaile suertatu den enpresak ez du eskura Nafarroako zergadunen datu basea.

Zergadunen datuen isilpekotasunari buruzko inolako arriskurik ez dago.

Telefono deiak hartzeko zerbitzuaren funtzionamendua orain arte izandakoaren antzekoa izan da.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak eginiko lana funtzionarioei dagokien eginkizuna izateari dagokionez, azpimarratzekoa da Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzuak ezaugarri bereziak dituela. Informazio-tratamendua masiboa denez, Tributu Ogasunak eman behar duen zerbitzuaren ezaugarri nabarmena da sasoikotasuna, alegia, noizbehinkako lan-metaketak, eta horri nekez aurre egin ahal diote funtzionarioek, Administrazioaren antolaketa berariazkoa duen zurruntasunaren ondorioz. Beste ezaugarri garrantzitsu bat zergadunari erantzuteko ordutegia da.

Beste ildo batera joz, azpimarratzekoa da beste tributu administrazio batzuek (AEATEk, Arabako Foru Ogasunak eta abar) antzeko prozedurak aplikatu dituztela eta horrelako zerbitzuak kanpora ateratzen segitzen dutela.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu dokumentuak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Informazio-tratamendua masiboa denez, Tributu Ogasunak eman behar duen zerbitzuaren ezaugarri nabarmena da sasoikotasuna, alegia, noizbehinkako lan-metaketa, eta horri nekez aurre egin ahal diote funtzionarioek, Administrazioaren antolaketak berariazkoa duen zurruntasunaren ondorioz. Beste ezaugarri garrantzitsu bat zergadunari erantzuteko ordutegia da.

Beste ildo batera joz, azpimarratzekoa da beste tributu administrazio batzuek (AEATEk, Arabako Foru Ogasunak eta abarrek) antzeko prozedurak aplikatu dituztela eta horrelako zerbitzuak kanpora ateratzen segitzen dutela.

Erakunde autonomoaren zuzendaritzak deialdi horretara jotzeko oinarri gisa hartu dituen datuei

dagokienez, 1999tik hona erantzundako deiak software berezi batez erregistratzen dira, zergadunari ematen zaion laguntza-zerbitzuaren kudeaketari buruzko behar den informazioa lortzeko bidea ematen duena (bai banakako laguntzari, bai telefono-laguntzari dagokionez ere).

Tributu Ogasunaren artxiboaren kudeaketaren balizko pribatizazioari dagokionez, une hauetan ez gara aukera hori aztertzearen aldekoak.

Ondokoa da gure irizpidea Tributu Ogasunak eman beharreko zerbitzuak kudeatzeko formulari buruz:

1. Nafarroako zergadunari ematen zaion laguntza kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzea.

2. Uneoro legeak betetzen direla bermatzea, Nafarroako zergadun guztiei buruzko informazioaren isilekotasunari dagokionez.

3. Hori guztia kudeatzen diren giza- eta gauzabaliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiliz.

GEDESA enpresa publikoa ez onartzeari dagokionez, kontratazio mahaiko idazkariaren txostena erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu txostena foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Tributuei buruzko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzearen ondorioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak tributuei buruzko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzearen ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Zerga Ogasunean telefono deiak hartzea kanpoko zerbitzu bati adjudikatzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Erakunde autonomoan 140.000 dei hartu dira. Lehiatila bakarrak erantzundako deien % 36,35 bertatik igorri ziren unitate tekniko espezializatuetara (funtsean, PFEZ eta BEZ). Telefono deiak hartzeko zerbitzua 3 pertsonak egiten dute. Langile horiek Informazio eta Eskualdeko Bulegoen Atalera atxikita daude, eta atal horrek honako eginkizun hauek ere betetzen ditu: inprimakiak jaso eta ematea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren erregistroa eta abar.

Lehiatila bakarraren zerbitzura administrazioko langile gehiago atxikitzea aztertu da, baina aukera hori bazter utzi da. Kontraturiko zerbitzua ezin izanen litzateke baldintza beretan eman.

Eginkizun hori orain arte betetzen zuten pertsonen lan-egoera ez da aldatuko; izan ere, dei

pertsonalizatu batzuei erantzuten segituko dute, eta, kasua bada, Nafarroako Ogasuneko bulegoetan jendeari pertsonalki erantzuteko lanean lagunduko dute.

Dei guztiei enpresa adjudikazio-hartzaileak erantzunen die lehenik eta behin. Pertsonalizatu gabeko deiak urrats horretan ebatzi beharko dira (epeak, inprimakiei buruzko zalantzak, oinarriko tributu-informazioa eta abar); ordea, pertsonalizatuak direnak eta teknikoki konplexuak direnak kasuan kasuko unitatera bidaliko dira (likidazio paraleloak, konpentsazio bidezko ordainketak, errekerimenduak eta abar).

Horrela, bada, enpresa adjudikazio-hartzaileko langileek ez dute nafar zergadunen ezein tributudatu eskuratzerik, eta, beraz, Datuak Babesteari buruzko Legea aplikatzeari begira ez dago inolako arazorik.

Enpresa adjudikazio-hartzaileko langileek 50 orduko prestakuntza-ikastaroa egin dute, eta haren edukia Zergadunarentzako Argibideen Zerbitzuari atxikiriko langileen prestakuntzaren antzekoa izan da. Aipaturiko unitateko arduradunak aritu dira irakasle prestakuntza-ikastaro horretan, euren lan-orduetan.

Zerbitzu berriak azpikontratatzeari buruzko azterlanik ez dago abian une honetan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Irurtzun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández jaunak Irurtzun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 12ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Irurtzun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zure departamentuaren ustez, beharrezkoa al da hainbat arinen esku hartzea egoera konpontzeko?

Horri buruz, jakinarazi behar da Irurtzongo korapiloko zorua indartzeko obrak eta Lekunberriko saihebidetako zorua indartzekoak 2000ko abenduaren 1ean lizitatu zituela Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak. Obra horiek 2001eko otsailaren 19an esleitu ziren; esleipen-aurrekontua 203.041.544 pezetakoa eta obra egiteko epea hiru hilabetekoa (obra-hasierako akta sinatzetik aurrera) zeukaten.

2.- Noiz konponduko duzue arazo larri hori?

Ezarri beharreko zorua drainatzailea denez gero, obra eguraldi ona egiten duen garaian egin behar da; horregatik, datozen maiatz-ekainean egin ahalko dela aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Lizarrako saihebidetaren azalera okupatu eta desjabetzeko tramitei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Lizarrako saihebidetaren azalera okupatu eta desjabetzeko tramitei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 12ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Lizarrako saihebidetari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Zertan dira Lizarrako saihebidetaren egiteko lurra desjabetu eta okupatzeko tramiteak?

- Proiektuak ukituriko finen kopurua: 310
- Jabe kopurua: 198
- Adiskidetasunezko erosketak: 286
- Adiskidetasunezko erosketak egin dugun jabeen kopurua: 170

• Epaitegira igorritako espedientei dagozkien fin-
kak: 24

• Epaitegira igorritako espedientei dagozkien fin-
ken jabeak: 18

2. Zenbat dira ukitutakoak eta zenbateko aza-
lera dute ebazteke dauden espedienteek? zenbat
egiten du jabeek jaso ez duten diruak?

• Galderaren lehenbiziko zatiari aurreko atale-
an erantzun diogu.

• Jabeek jaso gabeko diru-kopuruei dagokie-
nez, ezin dira kalkulatu, Nafarroako Desjabetza-
penen Epaitegiak balio justua ezartzeko zain gau-
delako.

3. Ba al du Nafarroako Gobernuak gai honetan
zintzilik dauden auziak azkartu eta behin betiko

konpontzeko asmorik, inolako kalte-ordainik jaso
gabe errekurtoa jartzean euren lurrak de facto
galdu zituzten jabeen egoera konpontzearen?

• Behar diren ordainketei ekiteko, bidezkoa da,
Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legeak
ezarritakoari jarraituz, Epaitegiak balio justuak
ezarri arte itxarotea. Hala eta guztiz ere, jabeek
eska dezakete, eta kasuren batean hala egin
dute, "adostasunezko muga" gisa ezarritako kopu-
ruak jasotzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta
ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio: José Igna-
cio Palacios Zuasti

Tuteraan erdi mailako zikloak ezartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan
ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de
Navarra Parlamentuko Taldeak Tuteraan erdi mai-
lako zikloak ezartzeari buruz egindako galderaren
erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren
12ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofi-
zian argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-
mentuko Taldeak galdera egin du Tuteraan erdi
mailako zikloak ezartzeari buruz. Hona Hezkuntza
eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Ostalaritzako lanbide familiako ziklo guztiak
multzo berean eskaini behar dira (ostalaritzako
eskola gehienetan gertatzen den bezala). Horretar-
ako arrazoia da ostalaritzako eskola batek, ongi
funtzionatuko badu, ikastetxeko ikasleek emanda-
ko ostalaritza zerbitzu bat eskaini behar duela.
Hartara oso praktika errealak egiten dira, presta-
tzen diren produktuen aprobetxamendu egokia
lortzeaz gainera. Horrenbestez, sukalde lanak egi-
ten dituzten ikasleak (sukaldaritzako erdi mailako
zikloa), zerbitzatzen duten ikasleak (jatetxe eta

tabernako zerbitzuen erdi mailako zikloa) eta
kudeaketa eta gainbegiratze lanak egiten dituzten
ikasleak (jatetxe arloko goi mailako zikloa) behar
dira.

Ez dirudi bidezkoa denik Corellan ostalaritzako
ikastetxe baterako egitura bat sortzea; hasteko,
ez dago alde hartan ikastetxe hori betetzeko
adina ikasle; bigarrenik, arauari jarraituz, daude-
nak baino askoz ere instalazio gehiago beharko
lirateke; hirugarrenik, ikastetxe hori Burlatan dago,
eta Nafarroan ikasketa horiek egin nahi dituzten
ikasle guztiak hartzen ditu.

2. Lanbide hastapeneko programen eskaintzari
buruzko plangintzaren hipotesiak ikasle nahiko
egotea aurreikusten zuen; hala eta guztiz ere,
matrikulen eskasia ez da programa horiek konfir-
matzen ari. Instalazio onak izateak bidea emanen
du bestelako prestakuntza eskaintzak egiteko,
noski. Zehazki, lanbide hastapeneko hezkuntzako
planaren baitan edo lanerako heziketako edo
heziketara jarraituko beste edozein ekimenetan,
Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera, beste-
lako ikastaro berariazkoa egin ahal izanen dira.
Nafarroako Lanbide Heziketarako Kontseilua
(enpresen, administrazioaren eta sindikatuen
ordezkariek osatzen dute) Nafarroako Lanbide
Heziketako Plana egiten ari da, eta eskualde eta
sektore guztietako egoerari eta beharri zeharri
buruzko diagnostia egiten da bertan. Aztergai

dugunari dagokionez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak baliabide horiek plan horretatik sor daitezkeen ekintzak aurrera eraman ahal izateko erabiliko ditu (uste izatekoa da plana 2001ean bukatuko dela).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Azkoiengo osasun barrutiko gaueko osasun laguntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Azkoiengo osasun barrutiko gaueko osasun laguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Azkoiengo osasun barrutiko gaueko osasun laguntzari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1. Zergatik ukatzen du zerbitzu hori Nafarroako Gobernuak?

Etengabeko laguntzako guneak (ELGak) 351/1992 Foru Dekretuak arautu zituen. 3. 3-b artikuluan adierazten da gaueko 22etatik biharamuneko goizeko 8ak arte guardiak lantokiz kanpoak izanen direla Nafarroako landa eremuko ELG guztietan eta beraz, profesionalak lokalizatzeko moduan izanen direla.

Dekretu hori aldatzeak eragingo luke, Azkoiengoaren kostua areagotzea ez ezik beste ELG askoren eskaera ere, kaltetuta sentituko lirateke eta.

2. Batez beste, zenbat jenderi ematen zaio osasun laguntza gauez osasun barruti horretan?

1999. urtean, guztira, gaueko larrialdiak 1.025 izan ziren (2,80 gau bakoitzeko).

Astegunetako gaueko batez bestekoa 2,3 izan zen, eta jaiegunetan 4,1.

Kontuan harturik 2 talde egoten direla guardian (2 sendagile eta 2 erizain), talde bakoitzari 1,4 larrialdiz arduratzea egokitzen zaio gau bakoitzeko (2,05 asteburuan).

Ez daukagu eskura 2000ko daturik.

3. Zer kostu izanen luke, gutxi gorabehera, osasun etxe horretan mediku eta OLT bana bertan egoteko ekartzeak?

Lantokian bete beharreko guardiaren ordua, sendagileen kasuan, 1.200 pezeta garestiagoa da lantokitik kanpo betetzen dena baino. Erizainen kasuan, 800 pezeta garestiagoa. Guztira 2.000 pezeta. Orduko.

Horrenbestez, urteko kostua, 10 ordu bider 365 egun bider 2.000 ordua egitetik ateratzen dena, 7.300.000 pezetakoa izanen litzateke, esan bezala, urtean.

Azpimarratu nahi nuke zenbateko hori ELG bakar batena litzatekeela. Nola arrazoituko genuke besteen eskaerari ezetza ematea?

Hortik aurrera nahikoa da 7.300.000 pezeta bider ELGen kopurua egitea.

4 eta 5. Departamentuak bilerarik egin al du Osasun Kontseiluarekin, eskaera hori aztertzeko?

Eskaera horri erantzuteko ekintzaren bat egingen al du?

Gaia eskualdeko osasun kontseiluan aztertu eta eztabaidatu da, bai eta oinarrizko osasun laguntzako taldeekin izandako bileretan ere. 2000ko martxora arte talde bat aritu zen, lantokian bertan, arratsalde, beste bat, lantokitik kanpoko guardia egiten zuena, gauez, gehi zerbitzua indartzeko talde bat, lantokitik kanpoko, asteburuetan. Azterketa sakon bat egin ondoren, 2000ko martxoan, zerbitzua indartzeko taldea, lantokitik kanpoko guardiakoa, aste osoan aritzen da. Horren

ondorioz, Azkoiengo ELG da, gaur egun, Nafarroako osatuena, Zangozakoarekin batera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta

hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Toki azpiegituren hiru urteko planeko obren diru-kopurua handitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki azpiegituren hiru urteko planeko obren diru-kopurua handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko martxoaren 5eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du toki azpiegituren hiru urteko planeko obren diru-kopurua handitzeari buruz. Hona hemen erantzuna:

1. Nafarroako Parlamentuak 2001-2003rako hiru urteko planerako 19.000 milioi pezetako zenbatekoa onetsi badu, zein da arrazoia Nafarroako Gobernuak, epe horretarako 24.617 milioi pezeta egiten duten lanak sartzeko hasiera batean ?

Funtsezko arrazoiak daude:

A) Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legearen 6. xedapen gehigarriak Toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legearen 6. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu izana, hiru urteko planaren zenbatekoak eta inbertsioak handitu baititu, 20.862.442.000 pezetako kopurua egin arte.

B) 7/2000 Foru Legearen eta hiru urteko plana egiteko irizpideak ezartzen dituen azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretuaren 3. artikulua aplikazioa.

2. Nafarroako Gobernuak aurreikusirik al du konpentsazio sistemaren bat ezartzea 2001-2003rako hiru urteko planean erantzun gabe geldituko diren 1300 eskaerak kontuan hartzeko?

Nafarroako Gobernuak, 2001-2003rako hiru urteko planari buruzko Legearekin bat, plan osagarriak prestatu ahalko ditu obrak adjudikatu ondoren dirua geratzen bada. Plan horietan sartuko dira 10 puntu lortuta ere planean sartzerik izan ez duten obrak, hautaketa eta lehentasun koefizientearen arabera.

Nafarroako Gobernuak Parlamentuari proposatuko dio berehalakoan onetsi dezan Nafarroako eskualde behartsuetarako azpiegitura plan bereziari buruzko foru lege proiektua, 1.050.000.000 pezetako zenbatekoarekin.

3. Nafarroako Gobernuak beste planifikazio sistema bat, egungo eskaerekin bat heldu dena eta zenbatekoa handiagoa egiten duena, lantzen ari al da, eskaeren bi heren erantzunik gabe gelditu ez daitezela?

Nafarroako Gobernuak banaketa hobea ahalbidetu dezaketela aldaketak aztertuko ditu.

Zenbatekoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak unean-unean dagoen diruaren menpe dago.

4. Nafarroako Gobernuak lantzen ari al da azpiegiturarako diru hori banatzeko gaurkoa ez beste moduren bat, Lizarra, Artaxoa, Azagra, Funes, Lesaka eta beste herri batzuetako egoera, alegia, herritarren bizi kalitatea hobetzeko oinarritzko lanak egiteko dirurik ez jasotzea, zuzentzeko?

Nafarroako Gobernuak ahalegintzen da Nafarroako herritar guztien bizi kalitatea hobetzen, eta indarra duten legeak betetzen dituen uneoro.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz, hona hemen erantzuna:

1. Nafarroako Auzitegi Nagusiko Fiskaltzan adingabeez arduratzen den fiskalak dioenez, Adingabeen Epaitegiak behar bezala jarduteko beharrezkoak izanen lirarteke bi administrari laguntzaile, agente bat eta behar adina baliabide informatiko. Hortaz, Nafarroako Gobernuak aurreikusi duenaren arabera, noiz hornitu ahal izanen du Adingabeen Epaitegia adingabeez arduratzen den fiskalak eskatutako baliabideez?

2001eko urtarrilaren 16ko prentsan adingabeez arduratzen den fiskalaren hitzak aipatzen ziren; Sánchez jaunak adierazi zuen bi administrari laguntzaile eta agente baten premia zegoela. Ez zuen ordea ezer esaten ordenagailuei buruz.

Oharrak halaber, Justizia zuzendari nagusiaren hitzak aipatzen zituen, eta hark esaten zenez, Ministerioak onetsia zuen fiskaltzaren plantilla handitzea, laguntzaile bat eta agente bat gehituz. Ministerioak hautapen prozesuak deitu bitartean, azken hau ere haren eskumenetako bat baita, eta lanpostu finkoak bete bitartean, beraz, plantilla aldatu ondoren Zuzendaritza Nagusiari lanpostuak betetzeko eskaera egin zitzaion urtarrilaren 15ean, aldi baterako langileak urtarrilaren 15ean izendatu ziren eta urtarrilaren 17an hartu zuten jabetza.

Ekipo informatikoak direla-eta, orain ari da ezartzen Adingabeen Epaitegiaren eta Fiskaltzaren arteko komunikazio telematikorako, baita kanporako ere, behar den kablea, epai irmoen datu basea kontsultatu ahal izateko; hurrengo asteetan beharrezko ekipo informatikoak eta adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legera egokituriko programa informatikoa paratuko dira. Inbertsioa, guztira, 10.700.000 pezetakoa da.

2. Adingabeen Fiskaltzak salatu du, halaber, egungo Justizia Jauregian ez dagoela tokirik. Nafarroako Gobernuak pentsatu al du nola konpondu arazo hori, premia berriei erantzuteko plantilla handitu behar dela kontuan harturik?

Plantillarako onetsitako gehikuntzaren bidez sartu diren langileek badute tokia Fiskaltzaren egungo egoitzan. Beraz ez da arazo hori gertatzen.

Nolanahi ere, Iruñeko Justizia Jauregian hurrengo lau urtetan modu ordenatuan eginen diren birmoldaketaren eta organoen kokapen berrien barrenean aurreikusirik dago Adingabeen Epaitegia eta Adingabeen Fiskaltza toki egokietan eta elkarren ondoan jartzea. Nafarroako Auzitegi Nagusia eta Estatuaren Fiskaltza horren jakinaren gainean daude.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 19an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz, hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

3. Nafarroako Gobernuak bilerarik izan al du beste autonomia erkidegoetako arduradunekin Nafarroatik kanpo eraiki ahal izateko Adingabeen Legeak agintzen dituen baldintzak betetzen dituen

zentro bat, horrelako zentro batean sartu beharreko nafarrak har ditzan?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak bilera bat izan zuen Logroñon Errioxako eta Kantabriako zuzendari nagusiekin.

Hizpide izan ziren gai hauek, besteak beste:

– Lege berriak zer eragin izanen duen erkidegoetan.

– Errioxan zentro bat eraikitzeke aukera. Araubide itxikoa izanen litzateke, erkidegoak berak finantzatua eta Nafarroako eta Kantabriari tokiak eskaintzeko aukera emanen luke.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Gizarte Ongizate Departamentuak epaimahaiak osatzeko teknikariak izendatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Gizarte Ongizate Departamentuak epaimahaiak osatzeko teknikariak izendatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Gizarte Ongizate Departamentuak epaimahaiak osatzeko teknikariak izendatzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Gizarte Ongizateko Departamentuak zenbat aldiz eta zein udalentsat izendatu ditu Departamentuko teknikariak azken bost urteotan, lehiaketa eta oposizioetan ebaluazio-epaimahaiak eratzeko, udalek hala eskaturik, eta lehen aipaturiko berezitasuna tartean dela (alegia, udalak izen-deiturak aipatuz teknikari zehatzak eskatzea)?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du behin ere teknikaririk izendatu Udalak berriaz eskaturik.

Atalburuak erabakitzen du zein teknikari proposatu, egokien jotzen dituenen artetik (administrazio-prozedura aurreko galderan zehaztu da).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Epaimahaiak osatzeko pertsona-eskaera espresuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak epaimahaiak osatzeko pertsona-eskaera espresuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du epaimahaiak osatzeko pertsona-eskaera espresuari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Gizarte Ongizateko kontseilariaren ustez, azaldutako prozedura horrek, zeinak bereizgarri baitu beharrezkoak diren pertsona zehatzak eskatzen direla, eta ez haiek bete beharreko baldintza teknikoak, sendo uzten al du bere Departamentuko funtzionarioen irudi ona, alde batera utziz pertsona horien jokaera guttiz etiko eta zuzena izatea?

Toki entitateek laguntza tekniko behar dutenean Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak haiekin lankidetzan aritzeko jarraitzen duen prozedura berbera da beti:

– Toki Entitateak idatziz eskatu behar dio Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari teknikarien laguntza, eginkizun zehatz bat betetzeko.

– Eskaera Institutura iristen da eta, erregistrotik, eskaera nori zuzendua dagoen alde batera utzita, Langileri Atalera bidaltzen da, eta hortik kasuan kasuko atalburuari igortzen zaio.

– Atalburuak proposatzen du eginkizuna betetzeko egokien jotzen dituen teknikarien zerrenda.

Hautzaindegi-zerbitzua betetzeko proiekturik egokienaren hautaketan laguntzeko eskaeraren kasuan –eskaera hori 1999an egin zuen Cintrué-

nigoko alkateak–, jarraituriko prozedura 1994ko abenduan jarraiturikoaren antzekoa izan da:

– Bietan, Cintruénigoko alkateak telefonoz deitu zuen Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura, hautzaindegi-zerbitzua emateko izangaiek aurkezturiko proiektuak Institutuko teknikariek balioets ote zitzaketen jakiteko.

– 1994an, atalburuak zenbait orientabide eman zizkion alkateari, hautzaindegi batek bete beharreko baldintzei dagokienez, eta erabaki zuen lan hori berak –arduradun-koordinatzaile bakar gisa—eta hautzaindegi propioetako bi zuzendarik eginen zutela.

– 1999an, atalburua beste pertsona bat zen, eta haur eskolak koordinatzeko teknikari bat zegoen. Hizpide dugun lana egiteko, atalburuak proposatu zituen haur eskolen koordinatzailea, programa horretan ziharduen teknikari bakarra zelako, eta Corellako “Niño Jesús” haur eskolako zuzendaria, zeinak 1994an ere parte hartu baitzuen.

– 1994an, alkatearen idazkia zuzendari kudeatzaileari zuzenduta zegoen, baina atalburuarekin izandako elkarrizketa aipatzen zuen. Begi-bistakoa zen atalburuarekin adostu zuela zein teknikari joanen ziren bere herrira. Telefono bidez aurretik iritsitako akordioa argi geratzen da ikusten baldin badugu alkateak fax bitartez bidali zuen idazkiaren data abenduaren 30ekoa dela, eta bertan hiru teknikari eskatzen zituela, urtarrilaren 4ko goizeko 10etarako.

– 1999an, alkatearen idazkia abuztuaren 25ekoa zen, eta egin beharreko eginkizuna irailean funtzionatzen hasi ahal izatekoa zen. Argi dago orduan ere telefono bidezko elkarrizketa bat izan zela, eta hartan ados jarri zirela nor joanen zen lana egitera; orobat, idazkia Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eskaturiko formalismo bat zela.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Cintruénigon igerileku girotu bat egiteko lanei lehentasuna emateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigon igerileku girotu bat egiteko lanei lehentasuna emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Cintruénigon igerileku girotu bat egiteko lanei lehentasuna emateari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Zer dela-eta lehenetsi du Nafarroako Gobernuak igerileku girotua eraikitzeko laguntza-ematea gaur egungoen zaharberritzearen kaltetan?

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko kirol-azpiegituren sarea osatzeko helburu batzuk finkatu ditu, eta, horretarako, Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailea taxutu du, 2000/2003 eperako.

Plan Zuzentzaile horrek ezarritako lehentasunezko helburuak dira, besteak beste, eskualdeburu diren udaletan eta gutxienez 5.000 biztanle inguru dauzkaten herri guneeetan 10 igerileku estali eraiki daitezkeen sustatzea, eta gutxienez ere 1.000 biztanle inguru dituzten udaletan oinarrizkotzat jotzen diren kirol instalazioak eraikitzea, alegia: estaliriko kiroldegia, futbol-zelaia eta udarako igerilekua.

Cintruénigoko Udalak 25 metroko igerileku bat –zeina bertako kiroldegia jadanik bai baitzeukan– estali eta girotzeko aurkeztu zuen eskaerari baiezko erantzuna eman zaio, aipaturiko Plan Zuzentzaileak ezarritako lehentasunaren babesean; izan ere, 5.732 biztanleko oinarri-udal bat da.

Oinarrizko bestelako kirol-instalazioak eraikitzeak eta era guztietako konponketek “bigarren lehentasun” izaera daukate, aipaturiko planaren arabera. Cintruénigoko gaur egungo igerilekuak (zehazki, 50 metrokoa eta plisti-plasta ibiltzekoa) konpontzea bigarren lehentasuneko obratzat jotzen da; horregatik, ez da diruz laguntzeko hautatu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Kasedan zahar-etxe bat egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak Kasedan zahar-etxe bat egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andres Bastera Layana jaunak galdera egin du Kasedan zahar-etxe bat egiteari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- Kasedako Udalak bertan zaharrentzako egoitza bat eraikitzeke daukan asmoaren berri ba al du eta babesik eman al dio Nafarroako Gobernuak?

2.- Zergatik ez zuen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Plan Gerontologikoan sartu etorkizunean Kasedan egoitza bat eraikitzea? Kasedako egoitza horren eraikuntzarako finantzaketan zein irizpideren arabera laguntzea erabaki du Nafarroako Gobernuak?

3.- Azpiegitura hori eskualdekoa izanen dela kontuan izanik –Eslaba eta Galipentzuko bizilagunak ere hartuko baititu–, ekarpen gehigarriak eskuratuko du Kasedako Udalak? Eskualde horretarako zerbitzu hori zein epetan abiaraztea aurreikusi du Nafarroako Gobernuak?

4.- Kasedako egoitza hori eraikitzeak zenbateko guztizko kostua izanen du? Inbertsio hori finantzatzeko zein ekarpen egiteko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak?

2001eko urtarrilaren 19an, Kasedako Udalak eskabide bat aurkeztu du herriko eguneko zentroaren eta erretirodunen elkartearen ondoan zaharrentzako egoitza bat eraikitzeke proiektua 2001. urterako Plan Gerontologikoan sar dadin.

Horri buruz esan behar da Nafarroako 1997-2000 Plan Gerontologikoa 1997ko ekainaren 3an onetsi zuela Nafarroako Parlamentuko Gizarte gaietarako Batzordeak.

Kasedako Udalaren eskaria gizarte zerbitzuen arloko 2001eko inbertsioetarako deialdiaren oinarriak onesten dituen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren azaroaren 28ko 79/2000 foru aginduak aipatzen dituen laguntzetan sar daiteke; hori dela eta, horretarako laguntzak eskatu dituzten gainerako toki entitateen baldintza bere-tan dago.

Publikotasun eta lehiakortasun printzipioen arabeko deialdi bat denez, kontuan hartuta aurkezturiko proiektuen balioespena egiten ez dela hasi, ez dago inolako ez bermerik ez konpromisorik Kasedako Udalak aurkeztutako proiektua aintzat hartuko dela segurtatzeko.

Aurkeztutako aurrekontuak 272.363.000 peze-ta egiten du.

Nafarroako Gobernuaren balizko diru-ekarpe-na deialdiko 3. atalean jasotakoa da. Horren araber-a, gehieneko laguntza batzuk ezartzen dira –aurreikusitako inbertsioen ehuneko 50erainokoa– irabazi asmorik gabeko entitateek sustaturiko zaharrentzako egoitza eta zentro berriak eraikitze-ko.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondo-rioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Tafallako belodromoa estaltzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Tafallako belodromoa estaltzearen bideragarritasun ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Tafallako belodromoa estaltzearen bideragarritasun ekonomikoari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- Tafallako belodromoa estaltzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostenik egitea eskatu al dio Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak Toki Administrazioako Departamentuari?

2.- Aurreko idatz-zatietan aipatzen den hilabetea igaro baldin bada, eta, kontuan izanik litekeena dela Toki Administrazioako Departamentuak behar den txostena eman ez izana, Kirol eta Gazteriaren Institutuak txostenik egin al du Tafallako belodromoa estaltzearen bideragarritasun ekonomikoari buruz? Horien kopiak nahi ditugu.

– Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak ez zion Tafallan “Miguel Indurain belodromoa” hartuko lukeen kirol gune bat eraikitzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostenik egitea eskatu Toki Administrazioako Departamentuari. Izan ere, lan horiek ez daude aurreikusita

2000/2003 aldirako Nafarroako Foru Komunitateko Kirol Instalazioen Plan Zuzendarian.

– Aipatu obrak 2000ko apirilaren 10ean Hezkuntza eta Kultura ministro Mariano Rajoy Brey jaunak, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilari Calixto Ayesa Dianda jaunak eta Tafallako Udaleko alkate Luis Valero Erro jaunak sinaturiko lankidetza hitzarmen batean daude bilduta. Hitzarmen hori 2000ko maiatzaren 30eko 129. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

– 2000ko abenduaren 18an, Estatuko Administrazio Orokorrak, Nafarroako Gobernuak eta Tafallako Udalak sinatu beharreko beste lankidetza hitzarmen baterako testua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, hain zuzen ere kirol azpiegiturak eraiki eta “Miguel Indurain” udal belodromorako behar zen materiala erosteko, bai eta urte anitzeko gastua egiteko ere.

– Geroago, 2000ko abenduaren 22an, aipatu obrak egiteko lankidetza hitzarmen berria sinatu zuten Kiroletako Kontseilu Goreneko lehendakari eta Estatu idazkari Juan Antonio Gómez-Agulo Rodríguez jaunak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilari jaunak eta Tafallako Udaleko alkate jaunak.

Instalazio horiek ez daude planean ezarritako arauen barruan, baizik eta sare bereziaren barruan; beraz, planaren aurrekontuko diruez kanpo daude eta plan horren osagarriak dira.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Canal de Navarra, S.A. sozietatearen administrazio kontseiluko kideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Canal de Navarra, S.A. sozietatearen administrazio kontseiluko kideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Canal de Navarra, S.A. sozietatearen administrazio kontsei-

luko kideei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Konpainiaren estatutuen arabera, kontseilarien kopurua 7 eta 9 artekoa da. Nafarroako Gobernuak haien erdiak izendatzeko aukera du. Une honetan, Nafarroako Gobernuaren izenean Ekonomia kontseilaria, Herrilan zuzendari nagusia eta Riegos de Navarra, SAko kudeatzailea daude, konpainia abian jartzeko une honetan ukituriko hiru jarduketa eremuak betetzeko: finantzaketa, obra bera eta ureztaketaren garapena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Canal de Navarra, S.A. sozietateko kudeatzailearen izendapen proposamenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Canal de Navarra, S.A. sozietateko kudeatzailearen izendapen proposamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Canal de Navarra, S.A. sozietateko kudeatzailearen izendapen proposamenari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Galdegileari interesatzen zaizkion gaiek Canal de Navarra SA enpresa publikoa ukitzen dute. Enpresa publiko horren zatirik handiena Estatua-rena da: hari dagokio, beraz, horri buruzko informazioa ematea.

Konpainiako kontseilariak garez gero, Sozietate Anonimoei buruzko Legeak ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak ezin dugu Administrazio Kontseiluan erabakitakoen berri eman. Galdera Ebroko Ur Konfederazioko lehendakariari igorri diot.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Canal de Navarra, S.A. sozietatearen finantza planari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Canal de Navarra, S.A. sozietatearen finantza planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Canal de

Navarra, S.A. sozietatearen finantza planari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Egun dagoen dokumentu publiko bakarra Sozietatearen Eguneratze, Inbertsio eta Finantza-ketari buruzko Programa da. Erantsita dator.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu dokumentua foru parlamentariaren eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Canal de Navarra, S.A. sozietatearen kapitalari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Canal de Navarra, S.A. sozietatearen kapitalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Canal de Navarra, S.A. sozietatearen kapitalari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Egun, konpainiak 32.000 milioi pezetako kapitala du; horietatik % 50 jarri da dagoeneko. Orain

arteko ekarpen guztiak Estatuak egin ditu. Nafarroako Gobernuak, berriz, 1.200 milioi pezetako akzioak erosteko erabakia hartua du.

Diru kopuru horiek zein entitatetan jarri diren Canal de Navarra, SA enpresa publikoaren kontua da. Enpresa publiko horren zatirik handiena Estatuarena da: hari dagokio, beraz, horri buruzko informazioa ematea. Konpainiako kontseilariak garenez gero, Sozietate Anonimoei buruzko Legeak ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak ezin dugu Administrazio Kontseiluan erabakitakoen berri eman.

Datozen lau urteetan, Estatuak 32.000 milioi pezeta bitarte jarriko du eta Nafarroako Gobernuak 3.800 milioi pezetako akzioak eskuratuko ditu.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Nafarroako ubideko obrak egiteko sinatu zen hitzarmenaren aldaketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako ubideko obrak egiteko sinatu zen hitzarmenaren aldaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Ubideko obrak egiteko

sinaturiko hitzarmena aldatzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur arte, ez da aldatu Sociedad Pública Canal de Navarra Sak eta Ingurumen Ministerioak 2000ko urtarrilaren 19an Iruñean sinaturiko hitzarmena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Lizarrako egungo epaitegiak hobetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Lizarrako egungo epaitegiak hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 12ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Lizarrako egungo epaitegiak hobetzeari buruz. Hona Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

1.- Noizko dago aurreikusita egungo epaitegiak –San Martin plazakoak, udaletxe zaharreen daudenak– hobetzeko obrei ekitea?

Erantzuna:

Beharrezkoak diren administrazio-izapideak egin ondoren, obrak egiteko kontratua egiten denerako. Edozein kasutan, obrak egitea kontratatzeko beharrezkoa da behin-behineko lokal alternatibo bat izatea, aipaturiko obrek irauten duten bitartean egoitza judizial gisa erabili ahal izan dadin.

Galdera:

2.- Zenbateko kostua dago aurreikusita?

Erantzuna:

115.000.000 (ehun eta hamabost milioi) peze-ta.

Galdera:

3.- Non izanen da, eta zenbateko kostua izanen du, obrak dirauen bitartean?

Erantzuna:

Oraindik ez da erabaki.

Galdera:

4.- Zenbat langile ditu gaur egun?

Erantzuna:

Lehen auzialdiko eta instrukzioko 1. epaitegian, epaile bat, idazkari bat, epaitegiko mediku bat, bi ofizial, hiru laguntzaile eta agente bat. Lehen auzialdiko eta instrukzioko 2. epaitegian, epaile bat, idazkari bat, bi ofizial, lau laguntzaile, bi agente eta beste laguntzaile bat, osagarri gisa, onetsiriko plantillaren gainetik.

Galdera:

5.- Aurreikusita al dago plantilla handitzea?

Erantzuna:

Ez dago horrelakorik proposatzeko asmorik. Edozein kasutan, plantilla eta horren aldaketak onestea Justizia Ministerioaren eskumena da.

Galdera:

6.- Aztertu al da epaitegi horiek beste inon behin betiko jartzeko aukera?

Erantzuna:

Aukera guztiak, baita leku-aldatzea ere, aintzat hartzen ari dira, baina leku-aldatzea ez da oso egingarritzat jotzen, kokagune egoki bat falta baita, juridikoki eta faktikoki.

Galdera:

7.- Zure departamentuaren ustez, normaltasunez ekin al diezaioke epaitegiak egun bere lanari?

Erantzuna:

Kontua da zer den "normaltasuna" galdegilearentzat. Izan ere, hitz hori arras zehazgabea da, eta are gehiago, Parlamentuko galdera bat dela kontuan hartuz. Bi epaitegiek euren lana normaltasunez egiten dutela jotzen da, Justizi Auzitegi Nagusiak ez baitigu, bere ikuskapenen ondorioz, anormala den ezeren berri eman. Edonola ere, egoitzaren funtzionaltasuna ez da egokia (eta horregatik zaharberritu nahi da), eta altzariak eta material ofimatiko eta informatikoa hobetzeko modukoak dira. Eta kontu horiei hasi zaie jadanik aurre egiten. Bestalde, epaile eta idazkari titularrik ez egoteak ere kentzen dio, gure ustez, sendotasun eta eraginkortasuna eginkizun jurisdikzionalari, postu horietan diharduten langileak euren lanean ahalegintzen diren arren.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Parlamentuak 2000n onetsitako hainbat erabaki betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Parlamentuak 2000n onetsitako hainbat erabaki betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 12ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Parlamentuak 2000n onetsitako hainbat erabaki betetzeari buruz. Hona, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoekin bat, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatu ziren Aitzoaingo kuarteleko tiro poligonoa berehala itxi zezaten. Osoko Bilkurak 2000-11-21ean onetsi eta Defentsa Ministeriora igorri zen 2000-12-22an.

- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuak aurkeztua. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da berotegi efektua eragiten duten gasen jaulkipenari buruz Kioton hartutako konpromisoak bete ditzan. Osoko Bilkurak eztabaidatu gabe du oraindik.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatu zen 2000. urtean Nafarroako lurraldearen antolamenduari buruzko jarraibideak presta zitzaizkion. Osoko Bilkurak 2000-11-21ean onetsi eta, hori betez, Gobernuak 2001-01-22ko erabakia hartu zuen.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatu zen azterlan ekonomiko bat aurkez zezan Audenasak daukan A-15aren emakida berreskuratzeak ekarriko lukeen gastuari buruz. Kontseilaria, 2000ko martxoaren 16an, batzorde berezian agertu zen, eta hor agertu zituen Gobernuak eginiko azterlan ekonomiko-

ak, A-15a berreskuratzearean kostuari buruzko azterlanak.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen tributuei buruzko lege orokor bat egin zezan. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Tributuei buruzko Foru Lege Orokor proiektu bat egin zuen; Nafarroako Gobernuak onetsi ondotik, Nafarroako Parlamentuara igorri zen. Proiektu hori, parlamentu-tramiteen ondotik, foru lege bihurtu zen, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra hain zuzen.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen nekazari eta abeltzaintzako tributu arloan doikuntzak egin zitzaizkion hurrengo errenta kanpainan. Azaroaren 24ko 247/1998 Foru Aginduen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko erregimena eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen erraztua garatu ziren 1999. urterako. Besteak beste, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren etekin indizeak ezarri ziren. Gero, 88/2000 Foru Agindua onetsi zen, maiatzaren 16koa, nekazaritzako eta abeltzaintzako zenbait jardueren 1999ko etekin garbia finkatzeko indizeak murriztu zituen.

- Jabeldura, PFEZari buruzko egungo Foru Legearen aplikazioari buruzkoa. Kontseilariak jabeldura horri 2000-06-23ko Osoko Bilkuran erantzun zion.

- Mozioa, EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeak aurkeztua, turismo-plan estrategiko bat egiteari buruzkoa. Turismo-plan estrategikoari dagokionez, Osoko Bilkurak 2000-05-25ean erabakia onetsi eta prestatu da jadanik 2001-2004 eperako plana; gutxi barru aurkeztu da.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen Merkataritzari buruzko Foru Lege orokor bat egin zezan. Merkataritzari buruzko Foru Lege orokor bat egiteari dagokionez, 2000-09-14an onetsi zen eta hila-bete barru-edo aurkeztuko da, behin betiko testuari azken aldaketak egindakoan.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen Erribe-

rriko eskualdeko jarduera eta enplegua manten zitzan. Osoko Bilkurak 2000-06-21ean onetsi zuen mozio horrek proposatutako erabakia. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernua, komunitatea osatzen duten gainerako eskualdeetan egiten duen bezalaxe, helburu horren alde egiten du lan, eta eskura dituen tresna guztiak erabiltzen ditu; enpresak erakartzen ditu eta industrialde proiektuak aurrera eramaten, hala nola La Nava eta udalek bultzatutako beste batzuk, zeinek Departamentuaren laguntza ekonomiko eta tekniko bati-tute. Barne merkataritzaren kalitate eta lehiakortasunari buruzko erabakiari dagokionez –Osoko Bilkurak 2000-10-20an onetsi zuen–, departamentu honek zenbait aurrekontu lerro ditu horretarako, hala nola PICNaren (Nafarroako merkataritza informatizatzeke plana) barreneko laguntzak, prestakuntza eta espezializazio ikastaroak helburu dituen kontusail bat, bai eta merkatarien arteko asoziazionismoa eta kontsumitzailearen babes hobetzeko aurrekontu lerroak.

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen departamentuartereko batzorde bat sor dezan tailer-eskolei buruzko plan bat egiteko. Osoko Bilkurak 2000-03-14an onetsi zuen mozio horrek proposatutako erabakia. Horri dagokionez, bada jadanik tailer-eskolei buruzko plan bat; izan ere, enpleguari buruzko politika aktiboak –lehen INEMenak ziren– transferitu egin dira; plana Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen du, Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin eta zenbait udalekin elkarlanean.

- Erabakia, 2000ko otsailaren 16an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen Nafarroa birtual baterako plan bat egin zezan. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak proposatuta, Nafarroako Gobernuak, 1999ko azaroaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Informazioaren Gizartearen Departamentuartereko Batzordea sortzea; eginkizunen artean, besteak beste, hau du: informazioaren gizartea garatzeko ekimen estrategiak prestatzea eta haien onespena Nafarroako Gobernuari proposatzea. Horrenbestez, batzordea zenbait lan egiten aritu da, eta horien emaitza izan da Informazioaren gizartearentzako Nafarroako Gobernuaren plan proiektua; Nafarroako Gobernuak gutxi barru izanen du plan hori onesteko aukera eta, ondoren, jendaurrean jarriko da. Ondorioz, erabakia bete dela esan daiteke.

- Erabakia, 2000ko martxoaren 14an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen 2003 urtera arteko inbertsio publikoen plan bat egin zezan. Errepideen arloan, zalantza larriak daudenez herrilan handiena –Iruña-Lizarra-Logro-

ño autobia– finantziatzeko aplikatu beharreko formulari buruz, eta obra horrek gainerako planeamendua baldintzatzen duenez, egin gabe dago plana. Beraz, funtsezko alderdi hori zehaztu arte, ezin da inbertsio publikoen plana egin.

- Erabakia, 2000ko martxoaren 23an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar zezan. Nafarroako Gobernuak, 2000ko abenduaren 26an eginiko bilkuran hartutako erabaki baten bidez, horri buruzko foru lege proiektua onetsi eta igorri zuen Nafarroako Parlamentura (Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua). Foru lege proiektu hori Parlamentuan ari da orain tramitatzen. Lurralde telebistari dagokionez, egin da, dagoeneko, Nafarroako Foru Komunitaterako lurreko telebista digitaleko zerbitzu publikoa ustiatzeko aurreproiektua; horri –hala daukagu aurreikusita– foru legea indarrean sartzan denean emanen zaio behin betiko bultzada, hau da, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Legea indarrean sartzan.

- Erabakia, 2000ko martxoaren 23an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen Lizarrako Merindadea sustatu eta garatzeko estrategia programatiko bat babes zezan.

Iruña-Logroño autobidearen obrei dagokionez, honako jarduketa hauek azpimarratu behar dira.

a.- Iruña-Logroño autobiaaren trazadura proiektuaren udalez gaindiko proiektu sektoriala. Lehenengo zatia: Iruña-Lizarra.

Trazadura alternatiben behin betiko onespena: Abenduaren 14ko 4590/1999 Foru Agindua

Udalez gaindiko proiektu sektorialaren deklarazioa: Gobernuak 2000-02-28an hartutako Erabakia

Udalez gaindiko proiektu sektorialaren onespena: Gobernuak 2000-10-16an hartutako Erabakia

Ingurumenaren gainean izanen duen Eraginaren Deklarazioa: Urriaren 30eko 1224/2000 Foru Agindua

b.- N-111 Iruña-Logroño errepidea berritzea: Zizur auzoberriko zatia

Onespen tekniko eta jendaurrean jartzea: Maiazaren 30eko 522/2000 Ebazpena

Behin betiko onespena: Otsailaren 13ko 1137/2001 Ebazpena

Obraren aurrekontua: 2.017.649.828 pezeta

c.- Iruña-Lizarra autobia: Garesko saihsbidea egitea, eta Iruña-Lizarra autobia: Arga ibaiaren gaineko zubia egitea Garesko saihsbidean.

Onespen teknikoa eta jendaurrean jartzea: Ekainaren 30eko 649/2000 Ebazpena

Behin betiko onespena: Azaroaren 8ko 1106/2000 Ebazpena

Saihsbidearen aurrekontua: 3.720.265.269 peze-
ta: Zubiaren aurrekontua: 1.424.972.219 pezeta

d.- Iruña-Logroño autobia, Zizur Nagusia-Gares tartea, egiteko proiektua.

Onespen teknikoa eta jendaurrean jartzea: Abenduaren 27ko 1308/2000 Ebazpena

Aurreikusitako aurrekontua: 13.327.000.000 peze-
ta

e.- Iruña-Logroño autobia, 4. fasea: Gares-Lizarrako saihsbidea proiektua prestatzeko lanak

Kontratazio espedientea: Urriaren 24ko 1035/2000 Ebazpena

Adjudikazioa: Urtarrilaren 12ko 19/2001 Ebazpe-
na

Egiteko epea: 9 hilabete

Aurreikusitako aurrekontua: 7.586.000.000 pezeta

f.- Iruña-Logroño autobia egiteko proiektua: Lizarra-Logroño zatia

Alternatiben alde aurreko azterlana: 1999ko apirila

Erabakiak aipatzen du, baita ere, kable bidezko komunikazioen garapena Iruñerako eta Tuterarako aurrekusi diren epeen antzeko denboran egiteko konpromisoa. Horri dagokionez, esan beharra dago telekomunikazioen zerbitzuen emakida Estatuaren ardura dela Nafarroako Foru Komunitatean. Hala ere, aipa dezagun Nafarroako Gobernuak baduela interesa telekomunikazio azpiegiturak, Nafarroako Foru Komunitatean, azkar eta ordenean heda daitezen, eta, beraz, hedapen hori bidera dezaketean ekintza oro sustatzen du; horrela, Nafarroako errepide guztietako jabari publikoko eremua deklaratu du erabilera konpartituko eremua, baldin eta telekomunikazio azpiegiturak hedatzeko bada, eta, horren ondorioz, zenbait operadorek Logroño-Lizarra-Iruña-Dantxarinea ardatzean telekomunikazio azpiegitura bat egiteko proiektua gauzatu da. Aipatu proiektu horrek, dudarik gabe, Lizarra aldean kablea lehenago hedatzea ekarriko du. Kableak Lizarran, Iruñean eta Tuteran izanen duen heda-

penaren erritmoari dagokionez, hurrengo aurreikuspenok aipatu beahar dira:

– Iruñean, 2001eko urte amaieran, % 70eko hedapena izanen du

– Tuteran, 2001eko urte amaieran hasiko dira kablea jartzen.

– Lizarran, 2002ko bigarren seihilekoan hasiko dira kablea jartzen.

- Erabakia, 2000ko apirilaren 11n onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen N-240 Iruña-Jaka-Huesca errepide osoa autobia bihur zezan. Esan beharra dago, horri dagokionez, oraingo Nafarroako Gobernuak beti esan duela Iruña-Jaka-Huesca errepideak autobia izan behar zuela, eta hori sustatu duela. Aipatzekoa da, halaber, errepide hori hasieratik izanen dela autobia; ofizialki dakigu hori, hala baitio Sustapen Ministerioako Errepideen Zuzendaritza Nagusiak 2000ko irailaren 13an emaniko agiri batean, eta hori da Esa-Jaka-Huesca zatian eskumena duen administrazioa.

- Erabakia, 2000ko ekainaren 23an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egin zezan. Berez, Itoizko urtegiko aldearen leheneratzeari eta urtegiaren erabilerei buruzko plana egitea Estatuari dagokio, hura baita obra hori eraikitzeke eskumena duen administrazioa. Hala ere, Nafarroako Gobernuak ekimen hori bultzatzeko eta lankidetzan aritzeko borondate osoa du. Horren ondorioa izan da Plan hidrologiko nazionalari buruzko lege proiektuan sartu izana Itoizko urtegia leheneratzeko plana, bai eta horren gibelaldeko urtegien eraikitzea ere (urtegiaren gozamenarekin lotura zuzena du). Ministroen Kontseiluak orain gutxi onetsi du aipatutako lege proiektua, eta Gorteetara igorriko du. Formalki, lanak hurrengo hilabeteetan hasiko direla aurrekusi da.

- Erabakia, 2000ko irailaren 13an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen Orkoiengo saihsbidea egitea aurreratu zezan. Erabaki hori onetsi zen bilkuran adierazi zenez, Nafarroako Gobernuak hartua zuen ordurako saihsbide hori egiteko obrak aurreratzeko erabakia. Orkoiengo saihsbidea 2005etik aurrera egitea aurreikusten zuen Nafarroako errepideen plan zuzendariak, eta, programazio berriaren arabera, obren kontratazioa tramitatzen ari da, saihsbidea 2001 eta 2002 urteetan egin dadin.

- Erabakia, 2000ko azaroaren 14an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen

Zuñiga eta Acedo arteko C-132 errepidearen obrak egiteko plana alda zezan. Mozio hori onetsi zenean, erabat zen ezinezkoa hori egitea, eta egin ahal izanez gero ere, oso kaltegarria izanen zen Acedo-Zuñiga errepidea egiteko obra aldatu eta, mozioak eskatzen zuen moduan, obretan zen errepide hori trafikoarentzako irekitzea. 2000ko urrian aurreikusitako programazioari zuzen-zuzen jarraikiz, errepidea 2000ko abenduaren 22an ireki zen berriro ere; ikusi denez, argi ikusi ere, onuragarriagoa izan da errepidea bi hilabetez itxita izatea, eta ez 9 hilabetez lanean aritzea errepidea tarteka itxiz (hori zen mozioak zekarren konponbidea). Lanak amaitu ondotik, are argiago ikusten da arriskua txikiagoa izan dela leherketa garaian errepidea moztuta, eta frogatu daiteke eginiko lurmugitze handiak, orografia oso zailaren ondorioz, arrisksuak izan direla oso.

- Informazioaren Gizartea garatzearren Nafarroako estrategia bat prestatzeari buruzko erabakia. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak proposatuta, Nafarroako Gobernuak, 1999ko azaroaren 15eko bilkuran, erabaki zuen sortzea Nafarroako Foru Komunitatean Informazioaren Gizartearen Departamentuarterko Batzordea. Eginkizunen artean, hurrengo du besteak beste batzorde horrek: Informazioaren gizartea garatzeko ekimen estrategiak prestatzea eta haien onespina Nafarroako Gobernuari proposatzea. Horrela, batzordearen lanen ondorio izan da Informazioaren gizartearentzako Nafarroako Gobernuaren plan proiektua; gutxi barru, Nafarroako Gobernuak proiektu hori onetsi eta, ondotik, jendaurrean jarriko da. Planak Gobernuaren eskumeneko arlo guztietarako jarduketak jasotzen ditu, eta, bereziki, aipatutako bosgarren erabakian jasotako alderdi guzti-guztietarako.

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida. Azpiegituretan inbertsioak egiteari buruzko erabakia. Errepide, tren-azpiegitura eta obra hidraulikoen arloko jarduketa guztiak arazorik gabe aurrera doaz; egokiro betetzen da horrela erabakian jasotakoa.

- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuak aurkeztea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen bere egin zezan alkateek zein kontzejuburuek kontratazioak egiteko dituzten eskumenei buruz Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena. Mozio hori onetsi aurretik, gutun bat bidali zitzaion Nafarroako toki entitate guztiei, aipatutako irizpena betetzeko eskatuz. Zuzendari nagusiak horri buruzko prentsa oharra ere igorri zuen, eta oihartzun nabarmena izan zuen Nafarroako komunikabideetan. Irizpena osorik fotokopiatu eta Nafarroako toki

entitate guztietara igorri zen ezagutu zezaten. Une honetan, txosten hori Departamentuak duen webgunean argitaratuta dago, eta Nafarroako toki entitate guztiek kontsulta dezakete.

- Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen landa-garapenari buruzko lege bat egin zezan. Europako legediarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 1999ko abenduaren 27an eginiko bilkuran, "Nekazaritza Garatzeko Programa" onetsi zuen; ondoren, Star Batzordeak aho batez onetsi eta, 2000ko irailaren 9an, Batzordearen erabakiz onetsi zen: C(2000) 2660 erabakia.

- EA/EAJ Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen Nafarroako Landa-garapenerako Lurraldeko Kontseilu Aholku-emailea sor dezan. Europako arauak ezartzen dute zein erakunde duen programa exekutatzeko ardura, bai eta programaren ondoriozko laguntzak zein erakunderen bidez exekutatu, kontrolatu eta ordaintzen diren ere. Hona:

Erakunde arduraduna: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Kudeaketarako erakunde nazionala: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Laguntzen exekuzio, kontrol eta ordaintzetan erakunde hauek hartzen dute parte:

A) Exekuzioa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

B) Ordaintza proposamena: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

C) Ordaintzetaren arduraduna: Ekonomia eta Ogasun Departamentua.

Askotariko Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen informazioa eman zezan Nepalen hildako ardiei buruz.

Foru Agindua, 2000ko abuztuaren 4koa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta elikadura kontseilariak emana, "prurigo lunbarra" delako eritasuna Nafarroan badela ofizialki deklaratzeko duena. 2000-09-16an Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Nafarroako Parlamentuko nekazaritza batzordean agertu zen.

Foru Agindua, 2000ko urriaren 27koa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana, "prurigo lunbarra" delako eritasuna Nafarroan desagertu dela ofizialki deklaratzeko duena.

- Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen ardiei "scrapie" izeneko gaitzari buruzko informazio kanpaina bat egin zezan. Goraxeago

aipatutako foru aginduez gain, bilerak egin ziren nekazaritza erakundeekin, abeltzaintza erakundeekin, kooperatibekin eta kontsumitzaileen elkarteekin.

- Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua premiaturik zuen hildako animaliak jasotzeko plan bat egin eta konponbideak bila zituzten. Gobernuak, horretarako, 2000ko abenduaren 26an hartutako erabaki baten bidez, plan hau onetsi zuen: 2001erako plana, behi-aziendaren enzepalopatia espongiformeari aurrea hartzeko Nafarroako Foru Komunitatean egin beharreko buruzkoa (Bosgarren ekintza, 7. neurria).

- Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua premiaturik zuen behi eroen gaitzari aurrea hartzeko neurriak har zituzten. Gobernuak 2000ko abenduaren 26an hartutako erabaki baten bidez, plan hau onetsi zuen: 2001erako plana, behi-aziendaren enzepalopatia espongiformeari aurrea hartzeko Nafarroako Foru Komunitatean egin beharreko buruzkoa.

- Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua premiaturik zuen pentsuen fabrikazioan animalien irinak erabiltzea debekatu zezan. Gobernuak 2000ko abenduaren 26an hartutako erabaki baten bidez, plan hau onetsi zuen: 2001erako plana, behi-aziendaren enzepalopatia espongiformeari aurrea hartzeko Nafarroako Foru Komunitatean egin beharreko buruzkoa.

- Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua premiaturik zuen "titulurik gabeko" zaharbertzaileen egoerari irtenbidea eman ziezaioten. Titulurik gabeko zaharbertzaileen habilitazioa Estatuaren eskumen osoa da. Espainiako Ondare Historikoaren Institutua, zeina Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren menpe baitago, ez du oraindik horrelako habilitaziorik egin inongo autonomia erkidegotan. Ez da, bestalde, zaharbertze obrak titulu egokirik gabeko langileei ematearen aldeko.

- Mozioa, EHrena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zuen haur eta lehen hezkuntzako aurrematrikula egiteko epeak mantentzea.

Hori erantzun zen, hala idatziz –Parlamentuko lehendakariari–, nola ahoz Osoko Bilkuran; eta erantzunetan adierazi zen zergatik Parlamentuko proposamenek, exekutiboaren eskumenak hartzeaz gain, ez zetozen bat eskolatze prozesuaren beharrekin ezta ikasleekin ere.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zuen gaitasun artistikoen hezkuntza arautu zezan. Arte dramatikoko irakaskuntzari dagokionez, Gobernu zentralari dagokio, betiere, arte dramatikoen arloko lanbide hezkuntzako berariazko titulua edo tituluak ezartzeko eskumena –oraindik ez da horrelako titulurik–. Horregatik, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eskatutako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari azter dezan Lanbide Heziketako horrelako titulu bat sortzeko aukera. Edonola ere, kontua ezin da bat-batean konpondu; izan ere, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak bideragarria eta egokia dela iritziko balu ere, Lanbide Heziketako kurrikulo bat sortzea prozesu lantsu, konplexua eta zorrotza da, eta, beraz, luzea.

Musika ikasketei dagokienez, ekainean jardunaldi batzuk dira egitekoak sektore horretako profesionalekin; urte bete baino gehiago eman da jardunaldiok prestatzen eta hor ateratako ondorioak abiapuntutzat hartu behar dira hurrengo urteetako jarduketan ildo nagusiak ezartzerakoan. Edonola ere, erabat argi dagoena da momentotan ez dela bideragarria LOGSEren arabeko goi mailako kontserbatorio bat, non eta ez den aurretiaz lan handia egiten musika eskoletan. Izan ere, horrela bermatuko da, batetik, karrera horretarako legeak ezartzen duen ikasle kopuru gutxienezkoak izatea, eta, bestetik, orkestra-ikasketetarako beharrezkoak diren instrumentu guztiak ere izatea –LOGSEK ezartzen duen kontserbatorio ereduari, funtsezkoak dira orkestra-ikasketak.

- Mozioa, CDNk aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zuen irakurketa publikoko mapa bat aurkeztu zezan, liburutegietako baliabideak antolatzeak. Irakurketa publikoko mapa gutxi barru aurkeztuko da Nafarroako Parlamentuan.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zuen Eskola Kontseiluak ezagutarazteko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat prestatu zezan. Ikasturte honetako lehenbiziko hiru hilabeteetan prentsa-kanpaina bat egin zen, Nafarroako Eskola Kontseiluarekin batera, ikastetxeetako eskola kontseiluetako hauteskunde garaian.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zuen eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau zituzten. Erabakian sei hilabete epea aipatzen da, 2001eko maiatzaren beteko baita. Hezkuntza eta

Kultura Departamentua aztertzen ari da proposamena.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko langileen lan baldintzekin pareka zitzan. Sindikatuek eta sektoreko itunpeko irakaskuntzako enpresaburuek 2000ko abenduaren akordio bat sinatu zuten: "Itunpeko irakaskuntzaren sektorean, hezkuntzaren kalitatea eta lan baldintzak arian-arian hobetzeko akordioa". Akordio hori marko jakin baten barrenean egin zen; hain zuzen ere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta enpresaburuen arteko "Negozioaziorako oinarriak jartzen dituen akordioa" izenekoak 2000ko azaroan ezarritako markoaren barrenean.

- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeko obrak has zitzan. Castejóngo ikastetxe publikoak ez du zabaltze beharrik, egun dituen baino ikasle kopuru handiagorako eraikia baitago. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak espazioen banaketa hobetzeko zenbait obra proposatu zituen, baina ikastetxeak ez zituen onartu; hala ere, obra horien parte bat egin da.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen ikastetxeetako elkarbizitzari buruzko araudi bat aurkez zezan. Mozioa 2000 urtean aurkeztu zen (Parlamentuko Aldizkari Ofizialean abenduaren 18an argitaratu zen), baina Hezkuntza eta Kultura Batzordeak otsailaren 15ean eginiko bilkuran onetsi zen. Hezkuntza eta Kultura Departamentua aztertzen ari da zenbait aukera.

- Mozioa, IU-EB, EA-PNV eta EH Parlamentuko taldeek aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen eskola-garraioari buruzko plan bat egin zezan. Hezkuntza eta Kultura Departamentua Eskola-garraioari buruzko plan bat egin zuen; 2000ko maiatzaren 25eko Hezkuntza eta Kultura Batzordean aurkeztu zen. Batzordearen ekarpenak kontuan hartu ziren; horiek, hala ere, aurrekontuko diruen baitan daude, bai eta Departamentuak izanzen dituen plangintza aukeren baitan ere 2000-2001eko eskola-garraioa antolatzerakoan.

- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen eskola-liburutegiak berri eta

egokitzeko plan bat igor zezan. Plana Hezkuntza eta Kultura Batzordean aurkeztu zen 2000ko azaroaren 11n.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen kultura eta ondare historikoari buruzko politika berri baterako plan bat egin zezan. Plana amaitzeaz dago eta gutxi barru igorriko da Parlamentura.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko plan bat egin zezan. Plana 2000ko urriaren 16an igorri zen Parlamentura.

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen departamentuarterako batzorde bat sor zezan tailer-eskolei buruzko plan bat egiteko. Plana gutxi barru igorriko da Parlamentura.

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida zela-eta Osoko Bilkurak onetsitako erabakiei dagokienez, hau esan behar da:

Hemeretzigarrena. Bada lankidetzarik Hezkuntza eta Kultura Departamentua eta Industria Departamentuaren artean, eta gero eta sendoago da. Orain elkarren arteko proiektu batean ari dira, Gobernu zentralaren oniritzia dutela; hain zuzen ere, energia berriztagarrien arloan prestakuntza emanen duen ikastegi bateratu bat sortzeko proiektuan.

Hogeigarrena. Kultura eta ondare historikoari buruzko plan bat egiteaz gainera –gutxi barru igorriko da Nafarroako Parlamentura–, Gobernuak Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioa sortu du; bultzatu egin nahi da, horren bidez, Foru Komunitatean interes kulturalakoak diren ondasunen zaharberritzea. Fundazioa 2001eko urtarrilaren 25ean eratu zen.

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen haurrei buruzko lege bat igor zezan. Egiten ari da; izan ere, Familiari buruzko planaren barreneko neurri gisa zegoen aurreikusita, eta plana gutxi barru onetsiko da.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen etorkinak gizarteratzeko plan bat egin zezan. Egoeraren diagnostikoa amaitu da, eta, martxoan, baloratu eta jarduketa-proposamenak eginen dira.

- Mozioa, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zen behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei. Eskura dagoen informazioa eskasa bada ere, egin, egiten da, eta, betiere, legeek ezarritakoa kontuan hartuz.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zen familiarientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 241/2000 eta 242/2000 Dekretuetan jasotako manu batzuk alda zitzaizkien. Urtarrilaren 29ko 24/2001 Foru Dekretuaren bidez aldatu ziren.

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zen Mitch hurakanak sorturiko hondamendiak arintzeko GKE-ek prestatutako proiektuak balora zitzaizkien. Dirulaguntzen 2000 urteko deialdian, kontuan hartu zen hori, eta positiboki baloratu ziren larrialdietarako eta berreraikitzeetarako proiektuak, bereziki Honduraskoak.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zen emakumezkoaren berdintasunerako plan bat egin zezan. Egina dago eta eztabaida publikoa izaten ari da (plana onesteko falta dena da departamentu bakoitzaren konpromiso ekonomikoa zehaztea).

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zen familiarri babes emateko departamentuen arteko plan bat egin zezan. Amaituta dago. Nafarroako Gobernuak martxoan onetsi eta Parlamentura igorriko du.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN EGOERARI BURUZKO EZTABAIDAN ONETSITAKO ERABAKIAK.

- Zortzigarrena: Gizarte Bazterketaren Plana 1998tik 2005era bitartekoa da eta planean bertan aurreikusitakoaren arabera ari da betetzen plana.

- Hamargarrena: laguntza mota guztiak eraldatzea aztertzen ari da, zaharrak beren etxeetan jarrai dezaten:

- Etxeko laguntza zerbitzua.
- Familiarientzako laguntza ekonomikoak.

- Hamalagarrena: prest dago, eta gutxi barru onetsiko da, familia bitartekaritza buruzko proiektu bat.

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zen botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatze

kanpaina bat abian jar zezan. Urteotan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Farmazi Prestazioen Zerbitzua farmazi gastuari eusten saiatu da, bai eta, bereziki, botikak era arrazionalen erabil daitezkeen sustatzen. Garrantzitsua izan da oso, horrela, oinarritzko osasun laguntzako farmazialariaren figura, hura izan baita botikak zuzen erabiltzeko jardueren aholkulari eta koordinatzailea.

Hurrengoak egin dira:

- 1.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen Informazio Farmakoterapeutikoari buruzko Aldizkaria (BIT) argitaratu da.

- 2.- Botikak era arrazionalen erabiltzea sustatzeko argitalpenak egin ditu.

- 3.- Osasun arloko profesionalentzako prestakuntza ikastaroak egin dira.

- 4.- Oinarritzko laguntzako farmazialariak bilerak egin ditu aldizka oinarritzko osasun laguntzako taldeekin. Hona zer eratako bilerak antolatu diren:

- 5.- Botikei buruzko informazioa.

- 6.- Laguntza Espezializatukoekin lankidetzatza.

- 7.- Oinarritzko Osasun Laguntzakoekin lankidetzatza.

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaturik zen gure komunitatean oporrak igarotzen dituzten begiraleen eta haurren osasun-premiei erantzuteko agiriaren banaketarako arauak eman zitzaizkien. Nafarroako herrietara udara igarotzera etortzen diren haur eta begiraleak, betiere, familietan aldi baterako harrerak ezartzen dituzten programen barrenean daude, eta programa horiek oso ongi zehaztuta eta garatuta daude Foru Komunitatean. Beraz, familietan aldi baterako harrerak ezartzen dituzten programen barrenean dauden atzerritar adingabeak ez dira "etorkinak", eta ezta ere horien begiraleak; izan ere, denak epe motzeko egonaldi baterako bisaz baitatoz Nafarroara (15 eguneko eta 3 hilabete arteko bisa). Denak dira osasun laguntza aurreikusten duen berariazko programa batekoak –baldintza batzuen araberrako laguntza; hori, lehen ere azaldu denez, erabat aurreikusita dago Nafarroan, bai eta eman beharreko agiriak ere.

- Mozioa, Euskal Herriarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Bardeako tiro poligonoa kentzeko eskatu zen. Hori eskatu duen parlamentariak badaki aipatu tiro poligonoaren inguruan egin diren guztiak.

Nafarroako Gobernuako departamentuak azterzen ari dira gainerako mozioak.

Hori guztia jakinarazi dizut, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak, idatziz erantzuteko galdera egin du gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Diru publikotik ari diren irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetan ikasleak 2001/2002 ikasturtean onartzeko prozedura arautzen duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urtarilaren 25eko 19/2001 foru aginduak egun ezarrita duen erreserba talde bakoitzeko plazen ehuneko 8raino hartzen du. Plazen erreserba hori arian-arian zabaltzen joanen da, urte bakoitzean ikasmaila bat.

2. Etorkinen familietako seme-alabak gainerakoen baldintza beretan sartzan dira Foru Komuni-

tateko ikastetxe publiko edo itunduetan, kasuan kasuko xehetasunekin, onartzeko baremoa aplikatzearen ondorioz. Izan ere, errenta txiki edo familia ugaria izateagatik puntuak ematen badira, etorkinen seme-alabak onartzeko zerrendetako lehen postuetan egon daitezke sartzea eskatzen duten ikastetxean; beraz, eskatutako lekua lortzeko modu oso onean egon daitezke.

Epez kanpoko eskolaratzeari dagokionez, Hezkuntza Departamentuak ez ditu atzerritarrak eta atzerritar ez direnak bereizten. Familiek nahi duten ikastetxean eskatzen dute seme-alabentzako lekua, eta bete gabeko lekurik badago behin-behinekoz onartzen dira; gero, Eskolaratze Batzardearen baimena lortu ondoren, behin betikoz onartzen dira.

3. Etxebizitza berean bizi diren anai-arreben eta ahaideen kasuan jarduteko moduari dagokionez, egoera hori behar bezala egiaztatzen bada (eroldako ziurtagiriaren edo balioa duen bestelako agiri baten bitartez), lehentasuna emanen zaio anai-arrebak eta bizikideak ikastetxe berean egoteari, hain zuzen ere eskatutako ikastetxean, lekurik egonez gero.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Kasedako Udalak onetsitako hitzarmenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak Kasedako Udalak onetsitako hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak, idatziz erantzuteko galdera egin du Kasedako Udalak onetsitako hitzarmenari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Arras txundigarria da parlamentari jaunak eskatutako informazioa; izan ere, sasoi hartan

Kasedako alkatea zenez gero, ederki baitaki zergatik ez duen aurrera egin udal horrek onetsitako transakzio-hitzarmena.

2. Nafarroako Gobernuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren bitartez, legea aplikatu eta aplikarazteko beharra du herri-lurak bezala nafar guztien ondare direnak babes-teko.

3. Transakzioen arloan, sekula ezin da datarik ezarri; hain zuzen ere, konponbideak bilatu behar dira, indarreko legeetan ezarritakoarekin errespetuz jokatu bidenabar aldeek ahal den hobeki onartzeko modukoak.

4. Arinak eta etengabekoak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Udal batasunei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Virginia Izquierdo Barasóain andreak udal batasunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Hona Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Virginia Izquierdo Barasóain andreak udal batasunei eginiko galderen erantzuna.

1. Zein udaletan dago 2000tik aurrera batasuna egiteko asmoa?

Administrazio arloan behar diren berrantolamendu-prozesuei ekiteko, Departamentuko Udal Zerbitzuak Bateratzeko Zerbitzua kontzientziazio lanak egiten ari da udal ordezkariak interesa erakutsi duten eskualdeetan, "mankomunitateak" sortzeko, zertarako-eta mankomunaturiko udalen administrazioa arrazoizkoagoa eta ezin hobea izan dadin, behar diren zerbitzu administratiboak eman daitezten eta udalek egoki jotzen dituzten zerbitzuak eman ahal izan daitezten behar diren langileak guztien artean ordaintzeko.

Kontzientziazio lan hori ondoren aipaturiko toki entitateetan egin dugu, Zerbitzuko zuzendaritzarekin "lan batzordeak" eratuz. Batzorde horietan, hartzailerek parte aktiboa zutela eta Departamentuko ordezkariak bertan zirela, antolamendu-diseinu berri bat prestatu eta dokumentatuko da. Orain arte, hauek izan dira lortu ditugun emaitzak:

LIZARRAKO MERINDADEA

Aras, Aguilar Kodeskoa, Cabredo, Genevilla, Marañón eta Lapoblación-Meano:

– Lan batzordea 2000-05-03an eratu zen, udal guztiek horren aldeko erabakia hartuta.

– Halaber, eratu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektu bat idatzi eta onetsi da.

– Ekimen hori, elkaturiko udalak elkarrekin komunikatzeko eta kudeatzeko sistema informatikoa zehaztu zain gaudela, “Mankomunitate Proiektu” baten prestaketan gauzatu da. Udal guztiek, Lapoblación-Meanokoa barne, egin dute bere proiektu hori. Udal horiek, ordezkarien batzordearen zati baitira, 2001-03-02an ekin diote aipatu mankomunitatea eratzeko arauzko prozedurari.

Iguzkitza, Lukin, Barbarin, Villamayor de Monjardín, Etaio, Oko, Olexua, Legaria, Allin Ibarra, Metautengo Barrutia, Ameskoabarren eta Ameskoagiengo gainerako udalak:

– 2000-04-10ean lan batzordea eratu zen, Ameskoabarren, Allin, Metauten, Etaio, Oko, Olexua eta Legariako ordezkariak horren aldeko erabakia hartuta.

– Gainerako udalek ez zuten zerbitzuari buruzko baiezkoko erantzunik eman.

– Halaber, eratu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektu bat idatzi eta onetsi da.

– Elkartzeko alde zurrerako jarrerara positiboa dago, baina konponbidea eman beharko zaie lehendik dauden egoera batzuei.

– Hemendik gutxira, ekimen hori bultzatu eta sustatu nahi dugu, gaur egun geldirik baitago udal ordezkari batzuen interes faltaren ondorioz eta Oko, Olexua, Etaio eta Legariako batasunak bere ezaugarri eta kokapen geografikoarekin hobeki uztartzen den beste jarduketara eremu batera joan da.

– Joan den urtarrilaren 30ean, Legarian aipatu udalen eta Antzin, Murieta eta Abaigarko Batasunaren arteko informazio saio bat egin zen; bilera-aren bukaeran, aipatu batasunak uko egin zion Ega ibarraren zati bat administratiboki berrantolatze-ko elkarketari buruz gogoeta egiteko prozesuan has-teari.

Deierri, Gesalatz, Jaitz, Abartzuza eta Lezaun:

– Lan batzordea eratzeko proposatutako bilera Jaitzen irailaren 27an eginiko bilkuran gauzatu zen.

– Ekimena antolamendu-diseinua eratzeko fasean dago; hasieran harrera ona egin bazitzaion ere, egiaztatu ahal izan da guztiek jarritako baldintza dela behin-behineko langileak automatikoki integratzea elkarte-egitura berrian.

– Joan den 14an egiaztatu ahal izan zen hori, eta hil bereko 28an eginiko txostenean baloratu zen. Gainera, Abartzuzako Udalak berretsi du gero, zerbitzu administratiboak emateko mankomunitate proiektuan –gure zerbitzuak proposatu bezala– parte hartzeari uko egin baito.

– Idazkaritzan eta kontu-hartzailetzan eginkizun publikoetan ari diren langile ez-funtzionarioak antolamendu berrian automatikoki eta hautapen prozesurik gabe integratzea lege ezinezkoa dela egiaztatu ondoren, eta udaletako gainerako ordezkariak ez baitituzte langile ez-funtzionario horiek galdu nahi, lan batzordeko udal ordezkariak, urtarrilaren 25ean eginiko bilera, erabaki dute elkarte-formulak aztertzen jarraitzea, Departamentuaren parte-hartze aktiborik gabe eta idazkaritza postuak alde batera utzita.

ZANGOZAKO MERINDADEA

Zaraitzu Ibarreko udalak:

– Espartzako udala izan ezik, ibarreko gainerako udalek, 2000-03-22an, proposaturiko lan batzordea eratzeko onetsi dute.

– Halaber, eratu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektu bat idatzi eta onetsi da.

– Elkartzeko alde zurrerako jarrerara positiboa dago, baina konponbidea eman beharko zaie lehendik dauden egoera batzuei. Bestalde, guztiek ez dute onartzen Otsagabia izatea mankomunitatearen egoitza, Departamentuaren txosten teknikoan azaltzen den bezala.

– 2000ko abenduaren 20an, lan batzordean elkartzeko ahaleginari buruzko eta udal bakoitzaren egoera ekonomikoari buruzko dokumentazioa aurkeztu zen, betiere zerbitzuak lan hipotesi moduan proposaturiko antolamendu-diseinuari jarraituz.

– Azken bilera joan den urtarrilaren 29an egin zen. Hartan egiaztatu zen aurkezturiko antolamendu diseinuari buruzko balorazio ezberdinak daudela; azpimarra berezia egin da Departamentuaren txostenean elkarte-entitatearen egoitza kokatzeko lekuari buruzko proposamena onartze-ko beharrez.

Erronkari Ibarreko udalak:

– Bilera bat egin da ibarreko udal guztiekin; bilera horretan, joan den legegintzaldian eskualde

horri buruz enkargaturiko azterlanaren edukia aztertzeaz gainera, Departamentuak parte aktiboa izateko eta ibarreko udalei beste antolamendu administratibo bat emateko jarrera berretsi da.

– Hasieran adierazitako interesa gorabehera, geroko elkarrizketetan berretsi baita, ez dugu erantzun zehatzik jaso.

Aezkoako udalak:

– Garaioa eta Or baitzetako udalak alde batera utzita, Aezkoako gainerako udalek 2000-11-07an proposaturiko lan batzordea eratu dute.

– Batzordearen azken bileran, aurtengo urtarrilaren 16an, ez ziren udal ordezkari guztiak egon, behin eta berriz gertatu den bezala. Horrek ezinezko egiten du antolamendu-diseinuan aurrera egitea. Bukaeran, Kontuen Ganbarak Aezkoako udalen administrazioa arrazionalizatzeko beharrari buruz egindako txostenaren edukiaz eta Departamentuaren ekimenaz gogoeta egiteko gonbitea egin zuen zerbitzu honek.

Irunberri, Erromantzatua, Ledea, Esa, Xabier, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Nabaskoze eta Gazteluberriko udalak:

– Aipatu udal guztiekin zerbitzuaz kontzientziazteko lana egin da, haiekin udalen berrantolamendu administratiboa egiteko formulak aztertzeke. Aurtengo irailaren 30ean ezarri zen horri buruz daukaten asmoa azaltzeko epemuga.

– Gaur den egunean, Irunberriko Udalak adierazi du horren aldeko jarrera.

– Zerbitzu honek ez du aurreikusi 2001. urtean ekimen hori lurralde horretan sustatzea. Izan ere, udal ordezkarien isiltasunetik ondoriozta daitekeen interes falta gorabehera, behar larriagoak daude, dauden administrazio-egiturak eta langileen kontratazio dudazkoak direla eta.

IRUÑEKO MERINDADEA

Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Belaskoain, Zabaltza eta Zizurko Zendeako udalak

– Udal horiekin izandako bileran aldeko jarrera azaldu dute zerbitzuaren ekimena aintzat hartzeko. Aurtengo irailaren 15ean jarri zitzairen horri buruz iritzia emateko epea.

– Zizurko Zendeako alkatea ez zen bilera horretara joan, baina ekimenaz informatzeko ardura bere gain hartzeko konpromisoa azaldu zion zerbitzu honi.

– Gaur egun, baiezkoko erantzuna jaso zain gaude, proposaturiko lan batzordea eratzeko.

Obanos, Uterga, Legarda, Muruzabal, Eneritz, Adios, Ukar, Añorbe eta Tirapuko udalak

– 2000-09-26an eratu zen lan bilera. Aipatu udal guztien jarrera oso aldekoa zen, eta elkartzeko jarrera oso argia adierazi zuten.

Zenbait bilera egin ondoren –haitan, lan hipotesi gisa lan batzordeak eginiko estatutuen proiektua onartu zen eta antolamendu-diseinu berriaren ondorio ekonomikoak ezagutu eta positiboki baloratu ziren–, esan daiteke udal ordezkarien jarrera itxaropena edukitzeko modukoa dela.

– Hemendik gutxira, optimismo horren norainokoa egiaztatu ahal izanen dugu, proposaturiko mankomunitateko “zerbitzu tekniko eta administratiboen” kokapena aztertzeke bilera bat eginen baita.

Lakuntza, Arbizu eta Ergoienako udalak (Sakana):

Zerbitzuak ahaleginak egin ditu joan den legegintzaldian elkarketari buruz egin zen azterketa dela-eta udal horiek erakutsi duten interes falta gainditzeko. Ez dugu aurkitu elkartzeko behar den interesa pizteko jarrerarik.

Esteribarko Udala:

– Udal eta kontzejuetako ordezkariekin informazio-hitzaldi bat egin ondoren, udalaren administrazioa berrantolatzeaz aritzeko, bi entitateen eskumenak batera biltzeko formulak aztertzeke jarrera aurkitu dugu haiengan. Halaber, eztabaida-foro bat eratzea proposatu zitzairen, hain zuzen ere eskumenetan gertatzen diren tentsioetarako konponbidea bilatzeko eta kudeaketa lanetarako guztiek duten ahalmena antolatu eta hobetzeko, betiere udaleko herritar guztien onura bilatuz.

– Dokumentu hau idazteko garaian, Udalaren arabera, era askotako erantzunak eman dira, guztiak aintzat hartzekeak.

Goñiko Udala

– Zenbait bilera egin dira berriki Goñi ibarreko auzokideekin, ibarreko kontzejuak desagertzeko aukerari buruzko iritzia izateko behar adina datu izateko.

– Dokumentua eman ondoren –bertan bermaturik dago esparru juridiko egokia auzokideek beren jatorrizko herri-aprobetxamenduetan daukaten eskubideen gainean Udalak eskatzen zuen lege-babesa–, proposamenaren aldeko jarrera antzeman ahal izan dugu.

– Aipatu udalaren baiezkoko erantzuna batez ere goi presioko ur hornidura izateko eskaintzari zor zaiola pentsa badaiteke ere, ibarraren administra-

zioa sinplifikatzeko aukera bidezko eta gomendagarriak asko eragin du herritarrengan, eta haiek berek ekin diote beren kontzejuak deuseztatzeko lege-prozedurari.

ERRIBERRIKO MERINDADEA

Orbaibarko udalak:

– Joan den legegintzaldian elkarteari buruz eginiko azterlanaren irizpideak aztertze eta berriz eztabaidatzeko jarrera bat bilatu nahi izan dugu udal horietan, baina ez dugu halakorik lortu.

– Harremanetan jarraitzen dugu udal ordezkariaren batekin, elkarrekin ulertu beharra duen eremu bateko elkartze-ekimenari berriz heltzeko une egokia aurkitzeko.

– Otsailean beste hartu-eman bat izan genuen Orbaibarko udal ordezkariekin. Beste behin eskaini zitzaizen Departamentuak haiekin lan egiteko aukera, udalen administrazioa berrantolatzeko balizko diseinu bati buruz gogoeta egiteko.

2. Aurreko zein udalen kasuan egin da jadanik batasuna?

Departamentuaren estrategiak, borondatezko eta parte hartzeko printzipioen arabeko adminis-

trazio-berrantolaketako prozesuak premiatu eta sustatzekoak –Parlamentuak gero, berriki, berretsi du asmo hori–, ez du gaur egun arte bilatzen zen eragina lortu: ez da elkarte entitate bat bera ere eratzea lortu, hori bazen ere eraturiko lan batzordeen helburua.

3. Batasuna egiteko asmoa dagoen zein udal-letan ez da oraindik egin, eta zergatik izan da hala?

Txosten honen edukiari begiratuta ondoriozta daitekeen bezala, elkarte formula ezberdinen bitartez administrazioaren berrantolamendua sustatzeko lanari dagokionez, Departamentuaren jarduketa-eremu ezberdinen egoerak kasuan kasu batasunak eratzea eragozten edo bideratzen duten arrazoiak zein diren erakusten du; izan ere, horren guztiaren laburpena da hartzaileen borondatean datzala prozesua, betiere indarra duten legeak hertsiki betez.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Genetikoki aldarazitako organismoekin NUPen egiten ari diren esperimendu eta ikerketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak genetikoki aldarazitako organismoekin NUPen egiten ari diren esperimendu eta ikerketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko

foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du genetikoki aldarazitako organismoekin NUPen egiten ari diren esperimendu eta ikerketei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez dauka galderan adierazten diren gaien berri.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

NUP ikertzen ari den pikillo piperraren patenteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak NUP ikertzen ari den pikillo piperraren patenteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko

foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du NUP ikertzen ari den pikillo piperraren patenteari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez dauka galderan adierazten diren gaien berri; ez dute zerikusirik bere eginkizunarekin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Abeltzaintza-ustiategiei buruzko araudiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak abeltzaintza-ustiategiei buruzko araudiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du abeltzaintza-ustiategiak baimentzeko baldintza tekniko, higieniko, osasuneko eta ingurumenekoei buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Uztailaren 24ko 188/86 Foru Dekretuak, zeina Nafarroako Aldizkari Ofizialean 1986ko abuztuaren 6an argitaratu baitzen, 7. artikuluan hamabost urteko epea ezarri zuen herri guneen barnean edo dekretu bereko 8. artikuluko 1. zenbakian adierazitako distantziak baino hurbilago kokaturiko abeltzaintza-ustiategiak desagertzeko, baldin eta ustiategi horiek legearen arabera izapidaturiko jarduera-lizentziarik ez bazuten edo bertan ezarritakoa betetzen ez bazuten. Beraz, epe hori aurtengo abuztuaren 6an beteko da.

Artikulu hori eta, oro har, Foru Dekretu osoa nola betetzen den ebaluatzeko informazio egokia izateko asmoz, Departamentu honek 2000ko uztailean Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones S.A. sozietateari eskatu zion Nafarroako abeltzaintza-ustiategien inbentarioa egin zezala. Horren edukia erantzun honi erantsitako baldintza-pleguan adierazten da.

2000ko urrian, lan hori sakonkiago egitea erabaki zen, Nekazaritza Departamentuak errolda xehetasun handiagoz sailkatu eta ustiategi bakoitzaren katastro-kokalekua ezartzeko interesa zeukalako. Horrela, bada, lanaren zati hori ere eskatu zuen aipaturiko Departamentuak.

Lana egiteak 34.003.250 pezetako guztizko gastua ekarriko du, eta lan hori egiten aurtengo apirilean bukatuko dela aurreikusten da.

Lana eskura daukatenean, zeresana daukaten bi Departamentuek antzemandako egoeraren arabera egokien jotzen dituzten neurriak proposatuko dituztela aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu dokumentua foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Telefono-antena ezartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak telefono-antena ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du telefono-antena ezartzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Ez-urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruetan instalazio-mota hori kokatzeko baimena ematea Nafarroako Gobernuari dagokio. Ingurumen-ikuspegitik, telefonia mugikorren antena ez dira jarduera sailkatutzat jotzen. Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatzekoak direnean, horiek baimentzeko eskumena toki entitateek daukate.

Esandakoa kontuan izanik, egindako galderari erantzun behar zaio Nafarroako Gobernuak lurzoru ez-urbanizagarrian kokatu nahi diren antenetarako emandako edo ukatutako baimenei edo haien izapidatze-espeditenteei buruzko informazioa duela soilik.

Hurrengo koadroetan gaurko egunean eskueran dagoen informazioa ematen da, eta argitu behar da litekeena dela baimendurik dauden baina oraindik egin ez diren instalazioak egotea, eta horretan ere Departamentu honek ez dauka eskumenik, kasuan kasuko eraikuntza-baimenak toki entitateek ematen dituztelako.

BAIMENDUTAKO ESPEDIENTEAK, UDALERRI ETA OPERATZAILEEN ARABERA ADIERAZIAK

BAIMENDUTA			
UDALERRIA	AIRTEL TELEFÓNICA AMENA		
	Guztira		
ABLITAS	1	1	1
OIBAR	1	1	1
ANDOSILLA	1	1	1
ANTSOAIN	2	2	2
ARGUEDAS	1	1	2

ARMAÑANTZAS		1	1
ARROITZ		1	1
ARTAXOA		1	1
AZAGRA		1	1
BARASOAIN	1	1	1
BAZTAN	1	1	2
BERBINTZANA		1	1
BERTIZARANA		1	1
CABANILLAS		1	1
CASCANTE		1	1
CASTEJÓN	1	1	2
ZIRAUKI		1	1
ZIZUR		2	2
CORELLA		1	1
DEIKAZTELU		1	1
EGUES	1	1	1
ELORTZ		2	2
ERRO	1	1	1
LIZARRA	1	1	1
ESTERIBAR		1	1
EZKABARTE		1	1
FALTZES	1	1	2
FITERO		1	1
FUNES		1	1
FUSTIÑANA		1	1
IMOTZ		1	1
ITZA		1	1
LAKUNTZA		1	1
LARRAGA		1	1
LARRAUN		2	2
ELIZAGORRIA	1	1	1
LEITZA		1	1
LESAKA	1	2	3
LEDEA		1	1
IRUNBERRI	1	1	2
MENDABIA		1	1
MIRAFUENTES	1	1	1
MONTEAGUDO		1	1
MURILLO EL CUENDE		1	1
NABASKOZE	1	1	1
ODIETA		1	1
OLAIBAR		1	1
ERRIBERRI		2	2
OLORITZ		1	1
OLTZA	1	1	1
OTEITZA		1	1
RIBAFORADA		1	1

SARTAGUDA	1	1	2
SESMA		1	1
TAFALLA	1		1
ULTZAMA		1	1
VALTIERRA		1	1
VIANA		1	1
IGANTZI	1		1

IZAPIDATZEN ARI DIREN ESPEDIENTEAK, UDALERRI
ETA OPERATZAILEEN ARABERA ADIERAZIAK

IZAPIDATZEN				
UDALERRIA	AIRTEL	TELEFÓNICA	AMENA	
			Guztira	
ABERIN		1	1	
ALTSASU		2	2	
ANTSOAIN	1	1	2	
ARROITZ		1	1	
AZAGRA	1		1	
CADREITA		1	1	
ZARRAKAZTELU		1	1	
CASTEJÓN	1		1	
ZIZUR	1		1	
EGUES		2	2	
ERRO		1	1	
LIZARRA	1		1	
LARRAGA	1		1	
LODOSA		1	1	
IRUNBERRI	1		1	
MENDIGORRIA	1		1	
MIRANDA-ARGA	1	1	2	
ODIETA	1		1	
OLAZTI		1	1	
OLTZA	1	1	2	
IRUÑA	1		1	
PUIU	1		1	
SANTAKARA		1	1	
TAFALLA	1		1	
TUTERA		1	1	
ULTZAMA		1	1	
VILLAFRANCA	1		1	
Guztira	4	11	17	32

2. Aurreko galderan esplikatu den bezala, Nafarroako Gobernuak ez du daturik galdera horri erantzun ahal izateko, udal eskumen bat baita.

3. Ondare Zerbitzuak eskainitako datuen arabera, Foru Komunitateko Administrazioarenak diren eraikinetan kokaturiko hiru antena daude: Allon (silo batean), Zangozan (silo batean ere) eta

Iruñean (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eraikinean, Bakearen Plazan).

4. Lehen adierazi bezala, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ematen ditu lizentziak, proiektuak lurzoru ez-urbanizagarrian kokaturikoak direnean.

5. Bai. Baimenak ematea, kasu honetan, Iruñeko Udalaren eskumena da.

6. Horren berri ez dugu, beste Departamentu bat aipatzen denez gero.

7. Ezin da, aurreko erantzunaren arabera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Osasun kontseilariaren erantzuna

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin zuen, urtarrilaren 7an, telefonia mugikorreko antenak ezartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuaren eskumenekoak diren gaiei dagokienez, honakoak kontuan hartu behar dira:

- Osasunbidearen Conde Oliveto eraikinean telefonia mugikorreko antena bat dago. Instalazio horretarako baimena Retevisión Móvil S-L. (Amena) enpresak eskatu zuen, eta Nafarroako Gobernuak baimena eman zion 2000ko abuztuaren 28ko erabakiaren bitartez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzako Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritzak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak beharrezkoak diren txosten teknikoak egin ondoren.

- Telefonia mugikorreko antenak herri gunee-tan edo haietatik hurbil jartzeak osasunerako arriskuak ekarri ahal izateari buruzko ezein azterlan edo txosten ez du egin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, orain arte ez dagoelako horri buruzko froga zientifikorik.

Hala eta guztiz ere, Osasun Publikoaren Institutuak munduan zehar egiten ari diren azterketa eta lan zientifikoaren etengabeko jarraipena egiten du.

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, egindako ikerketetatik batek ere ez du ondorioztatu telefono mugikorrek edo oinarri-estazioek era-

gindako irratifrekuentzia-aldaketen pean egoteak osasunean inolako kalterik sortzen duenik.

Bai neurketek bai kalkuluek ere agertzen dutenez, oinarri-estazioetatik datozen irratifrekuentzia-seinaleen mailak, jendea sar daitekeen eremuetan, nazioarteko estandarren oso azpitik daude.

Gaur egun, Osasunerako Mundu Erakundea ikerketetan sakontzen ari da, eta azterlanak eta haien ondorioak baloratu ahal izateko 3 edo 4 urte pasa beharko dira.

Azterlanen konplexutasuna kontuan izanik, eta erabat fidagarriak diren nazioarteko erakundeek zuzendutako lanak (batzuk jadanik eginak eta beste batzuk oraindik egite-fasean) badaudela jakinik, ez deritzogu egoki Nafarroako Gobernuak gai berberari buruzko azterlanei ekiteari. Bestalde, nazio-esparruan Osasun eta Kontsumo Ministerioak horrelakorik egin izanari buruzko konstantziarik ere ez daukagu.

• Azkenik, jakinarazi nahi dugu Errege Dekretu proiektu bat badagoela, eta horren bitartez onetsi-

ko dela Telekomunikazioei buruzko apirilaren 24ko 11/1998 Lege Orokorra garatzeko Erregelamendua. Bertan, besteak beste, emisio erradioelektrikoen pean egoteari muga batzuk jartzen zaizkio, eskueran dauden frogak zientifikoetan oinarrituz. Froga horien berri ematen da Arau Elektroteknikoei buruzko Europako Batzordearen baitako Erradiazio Ez-ionizatzaileei aurre egiteko Babeserako Nazioarteko Batzordearen ondorioetan eta Europako Batasuneko Kontseiluak jendea eremu elektromagnetikoen pean egoteari buruz 1999ko uztailaren 12an emandako Gomendioan. Emisio erradioelektrikoen pean egoteari jartzen zaizkion muga horiek telefonia mugikorreko operatzaileek praktikan errespetatzen dituzte jadanik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 6an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Toki Itunaren prestaketa-lanen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Virginia Izquierdo Barasóain andreak Toki Itunaren prestaketa-lanen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Virginia Izquierdo Barasóain andreak galdera egin du Toki Itunaren prestaketa-lanen egoerari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Zein prestatze-egoeratan dago Toki Ituna, haren hiru ardatzei dagokienez (politikoa, eskumenena eta finantzariora)?

2000ko irailaren 4an erabaki bat onetsi zen, eta horren bitartez Nafarroako Toki Itunetarako Departamentuarterako Batzordea eratu zen. Horren lehendakari Toki Administrazioako kontseilaria da, eta Nafarroako Gobernuko Departamentu guztietako Zuzendari Nagusi guztiek osatua dago.

Beharrezkoa den inkesta eta horren ondoko datu-bilketaren lana amaitzen ari da Nafarroako Gobernua. Bere asmoa da horiek osotasunean eta sakonki aztertzea, Foru Toki Itunaren helburua erdiestea xede duela: Nafarroako toki erakundeek eskumen gehiago eskuratzea.

Gaur egungo lanak eskumen-zerrenda bat osatuz amaituko dira, eta, horrela, honako arlo hauek definitu ahalko dira:

Toki erakundeei transferitu dakizkiekeenak; betiere, toki erakunde horiek ahalmen ekonomikoa eta haiek eskuratzeko interesa baldin badaukate.

Toki erakunde bakoitzarekin sinaturiko berariazko hitzarmen baten xede izan daitezkeenak.

Osagarritasun- edo subsidiarioritasun-teknika erabiltzera behartzen dutenak.

Zein departamentu ari dira Toki Itunaren pres-
taketan laguntzen?

Prestaketan Nafarroako Gobernuako departa-
mentu guztiek dihardute.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael
Gurrea Induráin

Langile minusbaliatuak kontratatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak langile minusbaliatuak kontratatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du 50 langile edo gehiago dituzten enpresetan lanpostuen % 2 minusbaliatuentzat izan behar direla ezartzen duen araua betetzeko langile minusbaliatuak kontratatzeari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitatean minusbaliatuekin sinatu eta erregistraturiko kontratuen kopuruari buruzko informazioa dauka Nafarroako Gobernuak. Azken 8 urteotako kontratu-kopurua erantzun honen eranskinean azalduko da.

Enpresek minusbaliatuak kontratatzeko betebeharra legeak ezarri bezala betetzen dutela kon-

trolatzeko metodoari dagokionez, kontrol hori Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskapenak ikuskatze-ekintzen bidez egiten duela esan behar da.

2. puntuari dagokionez, alegia, enpresa publikoetan lanean diharduten langile minusbaliatuen kopuruari, Departamentu honek ez du horri buruzko daturik.

Iruñean, 2001eko otsailaren 19an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

ERANSKINA
MINUSBALIATUEN KONTRATAZIOA
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN
1993-2000 EPEA

	ALDI		
	MUGAGABEAK	BATERAKOAK	GUZTIRA
1993	58		58
1994	92	151	243
1995	90	272	362
1996	105	213	318
1997	110	191	301
1998	111	100	211
1999	183	111	294
2000	187	136	323
GUZTIRA	936	1174	2110

Aurrekontuko azken hiru ekitaldietako superabitari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak aurrekontuko azken hiru ekitaldietako superabitari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du aurrekontuko azken hiru ekitaldietako superabitari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1998 eta 1999ko aurrekontualdietako aurrekontu-emaizta aurrekontualdi horietako bakoitzeko Kontu Orokorretan, Nafarroako Parlamentuak onetsiriko horietan, agertzen da. 2000ko aurrekontualdiari dagozkion kopuruak oraindik behin betiko zehazteke daude.

Kontu horietan ikusten denez, bi aurrekontualdietan emaitza metatu gordina 27.209,4 milioikoa izanik, finantza-pasiboa (nagusiki, zor publikoa) murriztu egin da 14.184,9 milioiko neurrian. Bestalde, lehenagoko aurrekontu-betetzeen ondorioz eskubide eta betebeharretan eginiko aldaketak kontuan hartu behar izan dira; horien zenbatekoa 11.739,5 milioikoa izan da. Halaber, zordun zalan-tzagarriak direla-eta 3.934,2 milioiko zuzkidurak egin behar izan dira. Hori guztia, Kontuen Ganbarak onetsitako irizpideak aplikatuz. Azken emaitza bi urte horietan metaturiko 2.649,3 milioiko defizita da. Beraz, ezertara bideratu beharreko inolako superabitik ez dago.

1999ko erreforma fiskalaren kostua 7.000 milioi pezetakoa izanen zela aurreikusten zen. Alabaina, 2000n zehar diru-bilketak ez du inolako kalterik izan, zeren eta, onetsi zenean adierazi zen bezalaxe, erreforma fiskalak Nafarroako ekonomia dinamizatzen lagundu baitu, eta horrek enplegu gehiago sortzea eta kontsumoa gehitzea erakarri du.

2000ko erreforma fiskalaren kostua 6.000 milioi pezetakoa izanen dela jotzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 13an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Nafarroan zein Estatuan KPIk izandako desbideraketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroan zein Estatuan KPIk izandako desbideraketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroan zein Estatuan KPIk izandako desbideraketari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Azken bi urte hauetan Nafarroako KPIaren eta Espainiako KPIaren kurben joerak oso antzekoak izan dira. Izan ere, urtarilaren akaberan gure erki-degokoa Espainia osoko batez bestekoa baino bi hamarren txikiagoa zen.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak gogoan darabiltzan neurriak dira lehiakortasuna susta-

tzea merkataritza eta industriaren alorrean, gizartearen kontzientziazioa eta energia berriztagarriak bultzatzea, ingurumenaren gainean eragin txikiagoa izateaz gainera petroliotik eratorritako erregaiekiko mendekotasuna murrizten baitute.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 13an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Elikagaien eta etxebizitzaren sektoreetako prezioen moderazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Elikagaien eta etxebizitzaren sektoreetako prezioen moderazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du elikagaien eta etxebizitzaren sektoreetako prezioen moderazioari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Ez baitirudi bidezkoa baimendutako gehieneko prezioen sistema, beste garai batekoa, berriz aplikatzea, Nafarroako Gobernuak egiten duena da lehiakortasuna sustatu eta merkataritza arloko

politika arrazionalizatzea, saltoki handiei buruzko lege proiektua bezalako ekimenen bidez.

Elikagaien arloari dagokionez, nabaria da KPIk gora egin zuela abenduan behi aziendaren entzefalopatia espongiformeak eragindako arazoa zela eta. Nafarroako Gobernuak erabaki zuen bere elikadura azturak ez aldatzea eta erkidegoko abeltzainei sostengua ematea. Dirudienez, herritarrek konfiantza dute egungo gobernuan eta horri esker, txekor haragiaren kontsumoa lehengora bueltatu eta txerriaren eta hegaztien garestitzea mantsotu egin da.

Gainerakoan, komeni da argitzea etxebizitzaren prezioa ez dela sartzen KPIren kalkuluan, eta idazpuru horrek mantentze gastuak hartzen dituela, eta bereziki berokuntzarako eta ura berotzeko erabiltzen diren erregaienak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 13an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Inflazioa gutxitzeko neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak inflazioa gutxitzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du inflazioa gutxitzeko neurriei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Edozein neurri ez da merkea. Gure tolerantzia tarte % 2tik gorakoa da eta komeni zaigu horri eustea. Interesekoa zaigu Europar Batasunarekin bilatzen dugun konbergentzia –diruan nola lansa-

rietan– erdiesten joateko. ¿Galdegileak pentsatu al du nola erdietsi behar ditugun Europako parametroak prezioen zein lansarien arloan? Ez al dirudi normala Espainian eta Nafarroan KPIren hazkundera, aldi baterako, herrialde garatuagoetako baino zertxobait altuagoa izateak, berdintasuna lortu ahal izateko?

Beste hautabide bakarra izanen litzateke gure eskumeneko sektoreetako prezioetan esku hartzeko politikak gauzatzea. Ildo horri jarraikiz, ostalaritza eta elikadurako prezioetan baizik ez genuke esku hartzea izanen.

Nafarroako Gobernuak gizarte itunak eta hitzarmenak bultzatzen ari da, prezioen egungo aldaketak aurrerago konpentsatu ahal izateko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 13an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

PFEZko atxikipenei eta horrek inflazioan duen eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak PFEZko atxikipenei eta horrek inflazioan duen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du PFEZko atxikipenei eta horrek inflazioan duen eraginari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Ez dirudi Nafarroan zergetan egin den murrizketak eragin duenik LPEEaren petrolio ekoizpenaren murrizketa edo behi aziendaren entzefalopatia espongiiformearen arazoa.

Gainerakoan, ez dago modurik zergen murrizketak KPIren gorakadan duen eragina neurtzeko. Nolanahi ere, Gobernuak legea proposatzean argudiatu zuenez, PFEZari buruzko lege berriaren aplikazioak Nafarroako ekonomia dinamizatu du eta horren ondorioz, lanpostuak sortu dira eta nafarren eroste ahalmena handitu egin da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 13an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak bi galdera egin ditu Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Cascanteko "Beata Vicenta María" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoaren irakasle dotazioa joan zen ikasturtean erabili ziren irizpide berberekin ezarri da aurten ere. Ikastetxe honek 259 ikasle ditu gaur egun (iaz baino 8 gehiago), 14 taldetan banaturik (iaz baino bat gutxiago). Datu hauek 18,5 ikasleko batez besteko ratioa ematen dute talde bakoitzean, eta ez da ezein taldetan gainditzen gehieneko ratioa, taldeko 25 ikaslerena, alegia.

Joan zen ikasturtean Cascanteko ikastetxe publikoak 23 maisu-maistrez osaturiko plantilla zuen, horietarik 3 (gorputz hezkuntza, musika eta euskara ematen zutenak) beste herri batzuetako ikastetxe batzuetan ere aritzen ziren. Dotazio honek 1,53 irakasleren ratioa ematen du ikasle talde bakoitzeko, eta horri gehitu beharko litzaioke beste irakasle baten lanaldi erdia, galderan aipatzen den arrazoi zela-eta hasi baitzen lanean.

Aurtengo ikasturtean, plantilla 22 maisu-maistrak osatzen dute, eta ibiltarien kopurua joan zen urteko bera da, horrek ematen duen ratioa 1,57

irakaslerena da ikasle talde bakoitzeko, aurten ikasle talde bat gutxiago baitago. Beraz 0,04ko aldea dago ikasturte honetako ratioan eta hori bider ikastetxeko 14 talde, irakasle baten lanaldi erdia egiten du, hau da, iazko ikasturtean zuen langile dotazio bera du aurten ere.

Nafarroan, ikasle taldeen kopurua 10etik 17ra bitartekoa duten ikastetxeen multzoan, non Cascante baitago, batez besteko ratioa 1,46koa da. Beraz, Cascanteko ratioa batez bestekoa baino 0,11 handiagoa da, hau da, 1,5 irakasle gehiago du. Irakasle baten dedikazioa, ibiltaria izateagatik, alde batera uzten badugu, Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoan irakasle baten lanaldi erdi bat gehiago dute, antzeko tamaina duten ikastetxeetan dagoen batez beste-koarekin alderatuta.

Azkenik, ohar gaitezen atzerriko ikasleen kopurua handitzeak ikastetxearen antolaketa desberdina ekar dezakeela ikasle horietako batzuen behar bereziei erantzutearren, baina ez irakasleen kopurua handitzea, plantillen egoera erreala kontuan harturik.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bilera bat egin zuen Cascanteko Udalarekin, azken honek eskatuta, eta horrez gain, prest agertu zen ikastetxeko eskola kontseiluan aurrean egoera aztertu eta departamentuaren arrazoiak azaltzeko ere, aurrerago arrazoi horiek ikuskatzaileak zuzendariari azaldu bazizkion ere. Egin ere egin zen bilera hura, eskola kontseiluko kideekin, eta azaldu zitzairen ikastetxeko plantilla bertako beharrei modu egokian erantzuteko behar adinakoa zela, aurreko ikasturtean bezala. Hortaz, departamentuak bere plangintzari eusten dio, arrazoizkoa eta datu objektiboren arabera justifikatua baita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Cintruénigoko DBH ikastetxea handitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko DBH ikastetxea handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Cintruénigoko DBHko ikastetxea handitzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Hasteko, beharrezkoa da argitzea galderaren planteamendua –okerrekoa–. Cintruénigon Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutua (DBHI) eraikitzea erabaki ondoren, herri horretako udalak bi orube (udalarenak ez direnak) eskaini zituen hasiera batez: bata, Rubio etorbidean, z.g., haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoaren parean, Castejón-Soria trenbideaz bestaldean, eta bestea, berriz, lehengo larrainak izeneko alderdian, Cintruénigo-Tutera NA-160 errepidearen alboan, COPASA zenaren parean (gaur egun Muebles GIMSA eta Alabastros ALSUNA).

Lehendabizikoaren alderdi onak ziren, batetik hiri ingurunearekiko kokapen egokiagoa zuela, eta bestetik haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikotik eta udal polikiroldegitik hurbil egotea (150 m baino gutxiago). Alderdi txarra, berriz, lurzati behar bezain handia ez izatea eraiki gogo zen ikastetxea aurrerago handitu edo instalazio osagarriak (gimnasio bat, adibidez) eranstekeo –une hartan, kiroldegia esker, ezinbestekotzat hartzen ez baziren ere.

Bigarren orubearen alderdirik onena azalera zen, asmo handiko proiektua gauzatzeko aukera ematen baitzuen, eta horrela, ikastetxea haren hezkuntza egiturak aurreikusten dituen instalazio guztiarekin osatu eta etorkizunean arazorik gabe handitzeko, beharrezkoa izanez gero. Zenbait arazo ere bazituen, ordea: hirigunearen bazterrean egotea, biztanle gehienengandik eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikotik urruti,

beraz; industri ingurune sendotuan egotea, kamioi trafikoa eta zarata handiarekin, eta zeharkatu beharreko N-160 errepidearen trafiko intentsitatea.

Batzordean 1995eko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, alkateak P.P.8ko K1 eta K2 lurzati jabeekin eginiko kudeaketen berri eman zuen, lurzati horiek beharrezkoak baitziren DBHko ikastetxea kokatzeko, aipatutako bi aukeretako lehenbikoaren kasuan. Batzordeko kide guztiek, aho batez, erabaki zuten aipatu orubeak erostearen aldeko iritzia helaraztea Osoko Bilkurari, eta Sozialisten Taldeak adierazi zuen proiektaturiko ikastetxean gimnasio bat jartzeko behar ziren kudeaketak egin beharra zegoela. 1995eko abenduaren 4ko Osoko Bilkuran erabaki zen, erabateko gehiengoaz, orube horiek erostea, gimnasioa lehenbailehen eraikitzeko konpromisoaz –Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin zein gabe– luze eta zabal eztabaidatu ondoren. Azkenean ez zen inolako erabaki zehatzik hartu instalazioa (eztabaidagai nagusia) eraikitzeko dataren inguruan, baina talde guztiak ados agertu ziren egin beharraz.

Egun, Cintruénigon dauden eskolatzeko datuak kontuan harturik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du aurreikusten “La Paz” DBHI handitzea, ikasgela eta jolastokien kopuruari dagokionez, behintzat, egungo beharrei erantzuteko behar adinako dotazio baduelako. Gai honetan ez da ahaztu behar ikastetxeak eskura dituela, 150 metro baino gutxiagotara, udal kiroldegia instalazioak, eta ikasleen gorputz eta kirol hezkuntzaren curriculumak garatzeko toki egokiaren premia ongi baino hobeki betetzen dutela. Foru Komunitatean nola gainerako autonomia erkidegoetan kiroldegiaz baliatzea ohikoa da ikastetxe askotan.

Halere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren konpromisoa da, erakunde gisa, irakaskuntzaren kalitatea eta beraz, ikastetxeen baldintza materialak ere hobetzen joan daitezen sustatzea; konpromiso horri atxikirik eta Cintruénigoko “La Paz” DBHIko hezkuntza erkidegoaren nahia eta herriko udalarena ere aintzat harturik, prest dago gimnasioa eraikitzeko lankidetzan aritzeko, ikastetxearen aldameneko lurzati erosi ondotik, eta halaxe jakinarazi zion idatziz Cintruénigoko alkate udalburuari 2000ko uztailaren 1ean.

Iruñean, 2001ko martxoaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Zenbait enpresa publikoko langile ezgaituen kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak zenbait enpresa publikoko langile ezgaituen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du zortzi enpresa publikotan langile minusbailatuak kontratatzeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eskainitako datuak:

Enpresa	Langileak	Langile minusbailatuak
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.	52	-
Instituto de Calidad Agroalimentaria, S.A.	10	-
Instituto Técnico y de Gestión Agrícola, S.A.	65	1
Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, S.A.	79	-
Navarra de Servicios, S.A.	23	-
Planetario de Pamplona, S.A.	12	-
Ciudad del Transporte de Pamplona	2	-
Navarra de Financiación y Control	0	-

Bestalde, enpresa publikoek ez dute salbuespenezko neurri alternatiboak erabili izanaren berri eman.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Cascanteko ikastetxe publikoan laguntzako irakasleak eskatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Cascanteko ikastetxe publikoan laguntzako irakasleak eskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak galdera egin du Cascanteko ikastetxe publikoan laguntzako irakasleak eskatzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 2000-2001 ikasturterako daukan plangintzari eusten dio. Plangintza hori zeharo arrazoitua eta datu objektiboen bidez justifikatua dago.

2.- Datuak jarraian azaltzen dira. Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako "Beata Vicenta María" Ikastetxe Publikorako aurtengo irakasle-zuzkidura aurreko ikasturtean erabilitako irizpide berberei jarraitzen zaie. Ikastetxe horrek 259 ikasle dauzka gaur egun (iaz baino 8 gehiago), 14 taldetan banatuta (iaz baino bat gutxiago). Datu horietatik lortzen den batez besteko ratioa talde bakoitzeko 18,5 ikaslekoa da, eta ezein taldetan ez da gainditzen gehieneko ratioa, zeina talde bakoitzeko 25 ikaslekoa baita.

Joan den ikasturtean, Cascanteko ikastetxe publikoak 23 irakaslez osaturiko plantilla izan zuen, eta horietatik 3k (Soinketako batek, Musika-katek eta Euskarako beste batek) beste herri batzuetako ikastetxeetan lan eginez osatzen zuten euren lanaldia. Irakasle-kopuru horrek ikasle-talde bakoitzeko 1,53 irakasleko ratioa ematen du, eta horri gehitu beharko litzaioke laguntza emateko ekarri zen beste irakasle baten lanaldi erdia.

Aurtengo ikasturtean, 22 irakasle daude plantillan, eta aurreko ikasturteko ibiltaritasun berak dituzte. Horrek ematen duen ratioa talde bakoitzeko 1,57 irakaslekoa da, aurtengo ikasle-talde bat gutxiago baitago. Ondorioz, ikasturte honetako ratioan 0,04 gehiagoko aldea dago, eta horrek, ikastetxeak dauzkan 14 taldeekin biderkatuz, irakasle baten lanaldi erdia egiten du; hau da, aurreko ikasturteko langile-kopuru berari eutsi zaio.

10etik 17 ikasle-talderako tartean kokaturik dauden ikastetxeek (bertan dago kokaturik Cascantekoa ere) Nafarroan daukaten batez besteko ratioa 1,46 da. Beraz, Cascanteko ratioa batez bestekoa baino 0,11 gehiagokoa da; hau da, 1,5 irakasle gehiagokoa. Ibiltaritasuna dela-eta irakasle baten lanaldia kontuan hartzen ez badugu, Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak antzeko tamainako ikastetxeek daukaten batez bestekoa baino irakasle-lanaldi erdi bat gehiago duela ikusiko dugu.

3.- Cascanteko udalak hala eskatuta, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bilera bat egin zuen harekin. Beranduago, bilera bat egin zen eskola-kontseiluko kide batzuekin, eta haiei agertu zitzaizkien ezein, aurreko ikasturtean bezalaxe, ikastetxeko plantilla ikastetxeko beharizanein oso modu egokian aurre egiteko behar adinakoa zela, gorago adieraziriko datuen arabera. Ikastetxeko zuzendariari horren guztiaren berri lehenago ere eman zion ikuskatzaileak.

4.- Atzeritik datozen ikasleen gorakada dela-eta, beharrezkoa izan liteke ikastetxea beste modu batean antolatzea, ikasle horietako batzuen berriazko beharizanein erantzuteko, baina ez, eskuarki, langile gehiago jartzea, plantillaren egiazko egoera kontuan izanik. Beharizanak nagusiki prestakuntzari eta irakaskuntza-material egokia izateari dagozkio, eta ildo horietan lanean dihardu Hezkuntza eta Kultura Departamentuak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña